


ETIKA

Alain Badiou

ETIKA





besatari

Jatorrizko izenburua:
L'Ethique

© bēsatari

Itzulpena: Antton Azkargorta
Azala: Txaro Fontalva
1. argitalpena: Bilbao, 1996
Inprimategia: Rontegi, SAL
ISBN: 84-921104-1-4
Legezko Gordailua: BI-2267-96

ALAIN BADIOU

ETIKA

Gaizkiaren kontzientziari buruzko saioa

Antton Azkargortaren itzulpena
eta hitzaurrea

AURKIBIDEA

Hitzaurrea 9
Sarrera 17

I GIZAKIA EXISTITZEN AL DA?
1. Gizakiaren heriotza 21
2. Eskubideen etikaren oinarriak 23
3. Gizakia: animalia biziduna ala singularitate hilezina? 26
4. Zenbait printzipio 32

II BESTEA EXISTITZEN AL DA?
1. Etika, Lévinasen arabera 35
2. "Diferentziaren etika" 37
3. Bestearengandik Guztiz-Bestearengana 37
4. Etika, erlijio deskonposatu gisa 40
5. Berbererako itzulera 42
6. Diferentzia "kulturalak" eta kulturalismoa 43
7. Berberetik egietaraino 44

III ETIKA, NIHILISMOAREN IRUDIA
1. Etika, beharren zerbitzari gisa 47
2. Etika, "mendebalak" heriotza kontrolatzeko modura 50
3. Bioetika 52
4. Nihilismo etikoa, kontserbadoretasunaren eta heriotz bultzadaren bitartean 55

IV EGIEN ETIKA
1. Izakia, gertakizuna, egia, subjektua 57
2. Egia baten definizio formala.....61


3. "Kontsistentzia" etikoaren experientzia.....65
4. Aszetismoa?.....70

V GAIZKIAREN ARAZOA
A/ Bizitza, egiak, Ongia.....74
B/ Gaizkiaren existentziaz 77
C/ Gertakizuneranzko itzulera, fidelitatea, egia.....83
D/ Gaizkiaren teoria baten zirriborroa 87
1. Simulakroa eta terrorea.....87
2. Traizioa 93
3. Izendaezina.....96

KONKLUSIOA.....104

BIBLIOGRAFIA.....107

ETIKA



HITZAURREA

Modan dago etikaz mintzatzea. Dena dela, etikaz politika eta kazetaritzaren profesional ugari ari bada ere, komunikazio-gaien artean ia izar bihurtu arte, egiazko (egiekin lotutako) etika gutxi dago. Hau, alabaina, ez dugu gure garaiaz aieneka ibiltzeko atxakiatzat hartu behar, zeren gai honetaz ezin baita esan inoiz sasoi hoberik izan denik.

"Morala" edo "etika", bereiztu gabe, gure gizartean jokaera pertsonal, sozial edo politikoei buruzko irizpenak emateko erabiltzen diren terminoak dira. Marxismoaren hondorapenak ekarri duen desastre ilunaren ondorengo ideien gabezia hain da sakona ezen munduan diren injustizia, miseria eta "burruka etniko" guztientzako irtenbide bakarrak heriotza, sarraskiak eta garbiketa bortitza direla baitirudi. Horrekin batera, agintari politikoen nepotismo eta ustelkeriak neurri guztiak gainditu ditu, horren kiratsa gizarte osoan hedatuz doalarik. Egoera honi guztioni irtenbideak aurkitzeko ezintasuna, kapitalismoaren eta parla-

mentarismoaren nagusitze planetarioarekin batera ari da gertatzen. Ez da hain harrigarria, orduan, testuinguru zabal horretan, sistema mantentzen duten berberek, "gaizkia" sortzen duten horiek, morala eta etika arma jaurtigarri bezala erabiltzea, beraien nagusitasuna mantentzeko daramaten burruka gordinean.

Alain Badiouk liburu honetan egiten dituen ekarpenak guztiz erabakiorrak dira, gaur gaiaz pentsatu ahal izateko. Pentsamendu filosofikoaren lerro nagusiek utzitako urratsak aztertuz, etikaz arrunki esaten dena, filosofia modernoan gaiaz agertzen denaren ihakin eskasa dela erakusten digu Badiouk; hau Kanti dagokionean nabarmen-nabarmena da. Une honetan "Kantenganako itzulera" bizitzen ari garela diosku. Gaurko pentsamenduak, moralitate edo arrazoi praktikoaren sinonimotzat dauka etika, arrazoi teorikotik bereizita. Arrazoi praktikoak bakoitzaren egintzak eta horien errepresentazioak lege unibertsal batekin lotzen ditu. Modu horretara ulertutako etika, subjektuaren —bakana zein kolektiboa— irizpen-printzipioa dugu. Horrela, bada, irizpenetan oinarritutako etika batez hitz egingo genuke (irizpenen etika). Zuzenbide naturalaren teorikoek balore unibertsal, eterno eta aldaezinak daudela uste dute. Balore horiek egoera zehatzen eta kontsiderazio enpirikoen gainetik leudeke. Baloreok aginduen forma hartzen dute eta zuzenbide estatalak zein nazioartekoak isladatu eta babestu behar omen ditu, eta urratzen dituenak zigortu. Urratzen dituztenen portaera burrukatu behar den "gaizkia" kontsideratzen da. Balore hauek ez dira positiboki aurkezten, baizik eta gaizki-ezaren eskubide bezala, eta bere babes formala exijigarria dela esaten da. Ideologia etiko horrek, beraz, Gaizkiaren

ukapen diren baloreak aurkezten ditu eta unibertsalak eta denboratik kanpokoak izan arren, kontsentsu orokorraren bitartez legeterietan txerta daitezkeela proposatuz iritzien etika batekin nahasten ditu. Ondorioz, etika horrek ez du ezer aldatzeko indarrik, iritziak soziabilitatearen sustraia baitira, gizarte-egituran dabiltzan jakintzaren puska anarkikoak. Etikaren ikuskera hau ideologia hutsa da. Gizaki zehatzak eta egoera zehatzak ukatu egiten ditu, egien edozein pentsamendutatik eta horien protagonistetatik urrundu egiten da.

Badiouk etikari zentzu guztiz bestelakoa eman nahi dio eta, horretarako, Hegelek egindako bereizketa funtsezkoa zaio: "etika" (*Sittlichkeit*) egintza *berehalakoa*ri dagokio, "moraltasuna" (*Moralität*) berriz, egintza *hausnartuari*. Eta printzipio etikoaz hauxe esan zuen Hegelek berak : "ordena etikoaren funtsa berehalako erabakia da".

Morala kalkulagarria da beti baitagokio legearen pean dagoen egoerari, ezarritako gertaera eta jakintzarekin baitu zerikusia. Gizakiek gertaera eta jakintza horietaz duten irudiarekin (ideologiarekin) egokitzen den erizpen printzipio baten bitartez neurtu daitezkeen eritziak ematen dituzte. Iritzi moralak, dagoen egoerari buruzkoak izanik, planifikatu aztertu eta baloratu egin daitezke. Morala, beraz, erreflexiboa da. Egoeraren anitzei gertatzen zaienaz hausnartzen du; hausnarketa hau amaigabea izan daiteke eta ezer ez egitea eskatzen du. Bere zigorra: ezagutza berriengana ezin ireki daiteke.

Etika, ordea, kalkulaezina da, planifikatu gabeko berehalako erabakia baita. Dagoenarekiko hausturaren apustua egiten du. Etika, funtsean, subjektuaren erabakiezintasuna da, zeren, sub-

jektuak, protagonistak, erabaki ezin daitekeen zerbaitez erabakitzen du, hots, egoerak erabakitzeko baliabide nahikorik ematen ez dion horretaz. Ez dago hausnarketarik hemen, etikaren erabakia ez dago datuen aniztasun infinitua aztertzearen zain. Etikaren erabakia egintza egindako pentsamendua izanik, edozein hausnarketaren gainetik dago. Bere saria: berritasunak eta egiak aurkitzeko prest dago.

Badiourentzat ez dago etika orokorrik: "Beharrezkoa da 'etikaren' dispositibo ideologikoa errefusatzea, gizakiaren definizio negatibo eta biktima gisakoaren aurrean amore ez ematea". Kantengandik, eta moral orokorraren planteamendutik urrundu egiten da horrela. Dagokeen etika bakarra egia prozesuetakoa da, eta beraz, prozesu horiek sortzen direneko egoera aldakorrena: politikaren, maitasunaren, artearen edo zientziaren etika egon daiteke. Ez dago subjektu bakar bat, hortaz, baizik egia-mota beste subjektu, eta egia-prozedura bezain beste subjektu-mota.

Kant alde batera utzita, Badiouk kapitulu osoa eskaini dio "diferentziaren etika" edo "Bestearen etika" aztertzeari. Emmanuel Lévinas izan da ikuspuntu honetatik gaur planteatzen den nolabaiteko erradikalismo etiko baten jatorria. "Beste" horren barrruan sartzen dira, "guk" (mendebaldeko herri garatuok alegia) ez bezala bizi, pentsatu eta jokatzen duten guztiak. Etikaren bertsio honen arabera, Bestearengandik eta berarekiko dugun jarreragatik hasi beharko genuke nor garen jakin nahi badugu. "Beste" horren ezagutza eta tolerantziaren diskurtsoa izango lirateke pentsamendu horren emaitza ezagunenak, eta, zehatzago, arrazakeria, xenofobia, eta munduaren eredu kultural bateratuaren kontrako diskurtsoak. Badiouren ustez, pentsamendu hau "teologiak anulaturiko filosofia" baino ez da, edo gogorrago esanda: "Errukirik gabeko diskurtso errukitsua, gobernu ezgaientzako gehigarri espirituala, predikazioaren beharrengatik klase-burruka defuntua ordezkatzen duen soziologia kulturala".

Badiouk egia baten etika, egia-prozesu baten *jarraipen-printzipioari* deitzen dio. Hau da, hain zuzen ere, egia-prozesuak eragindako subjektu baten egintzari *kontsistentzia* ematen diona. Kontsistentziak subjektuaren lege propio bat dagoela adierazten du, ez-jakinaren (edo horretan parte hartzen duen norbaiten) lege bat, eta lege hori ez da egoera arruntaren legea. Barne-lege propio eta subjektibo horrek, egia batek eragindako prozedura fidelean ekiteko kontsistentzia ematen dio subjektuari; egia horrek iraunkortasuna ematen dio denboran eraikitzen duen trajektoriaren jarraipenari.

Gaur egungo Euskal Herritik liburu honi egin dakiokeen irakurketa, guztiz garrantzitsua iruditzen zait, gure herria egien subjektuen ugalketaren leku pribilegiatua delako. Hemen egien etika, zentzu sakonean, eguneroko ikuskizuna dugu, batez ere egia politikoari dagokion aldetik. Beharbeharrezkoa zaigu horretaz pentsatzea, zeren egiazko etika horren ondoan —eta ezin da bestela izan— moralismo kontserbatzaile makur eta maltzurra ere barra-barra baitabil, batez ere botere politiko eta ekonomikotik eta bere tresna pribilegiatuak diren komunikabideetatik datorkiguna, beti ere gauzak dauden bezala mantentzeko eta beren interes eta pribilegioak defenditzeko.

Amaitzeko, hona hemen Badiouk politika filosofiatik nola ikusi behar den laburbil dezakeen proposamen oso sintetizatua, eta gure herriaren

prozesu politikotik ikusita oso interesgarria gerta dakigukeena. Bere *D'un désastre obscur* liburuaren azken parrafoa da: "Filosofiak, tiranoaren zerbitzutik eta aldakortasun sofistikotik aldiberean aldendutako ariketa izatekotan, politikaren hasiera Estatuaren desagerpenaren aldeko pentsamendu-praktika *eragingarria* den neurrian dagoela jaso behar du. Pentsamendu bat Estatutik kentzen deneko guneak, kenketa hori izatean bertan inskribatzen duela, politika baten erreal osoa egiten du. Eta erakunde politikoak "irabazitako urratsa mantentzea" du helburu, halaber, bere jatorrian dagoen intsumisioaren keinu publikoa aurkitzen jakin duen kolektiboki bildutako pentsamenduari, *gorputz* batez dohatzea."

* * *

Alain Badiouren lan filosofikoan hiru etapa bereiz daitezke. Lehena, Louis Althusserren maisutzaren itzalean burututakoa; lanaren ikuspuntu nagusia epistemologikoa izan zen. Garai hartako liburu adierazgarriena *Le Concept de modèle* izan zen. 68ko gertakizunak epe berri zein erabakiorra ireki zuen Badiouren pentsamenduan. Bigarren etapan, 1972an hasitakoan, Deleuze eta Lyotarden eskutik sortu eta hedatuz zihoazen ideologia anarko-desiratzaileak salatzera eta burrukatzera militanteki dedikatu zen, baita Althusserren bideari jarraituz zebilen nolabaiteko eskolastikaren kontra ekitera ere; estrukturalismoaren positibismo konbinatzailearen aurka kontraesanaren nagusitasuna berretsi zuen, eta, errepikapen eta simetriaren aurka, hausketa kualitatiboa proposatu. Aldi berean, *Théorie du sujet* liburuan, ezagutza, dialektika eta ideologiaren birfuntsaketa materialista-dialektikoaren oinarri teorikoak landu zituen. Azkenik, laurogeigarren hamarkadaren er-

dialdetik, marxismoaren suntsiketaren "desastre ilunari" bere berrasieraren preskripzioa kontrajartzen saiatu da. Etapa honetako paradigma nagusia matematikoa izanik, izakiaren pentsamenduaz aritzerakoan Heideggerren bidearekin desberdintzen da: *poema* aukeratu beharrean *matema* aukeratu du; eta subjektuaren teoriari dagokiola: Lacanetik harantzago mantendu da. Horra hor, XX. mendearen amaieran, pentsamenduaren bidean egindako apostu paregabea.

Itzultzaileak

SARRERA

Jakintza-hitz batzuek, luzaroan hiztegietatik eta prosa akademikotik bazterturik egon ondoren, zorionez edo zoritxarrez —pixka bat zergatia ulertu gabe, dantzalekuko estimatuena bihurtu den neskazahar etsituaren antzera— bat-batean momentuko plazara irteteko parada izan dute; plebis- eta publi- zitatuak, prentsaratuak, telebistaratuak izan dira, gobernuen diskurtsoetan agertzera ere heldu direlarik. Grekera —edo filosofi ikastaroa— hain indartsuki gogora ekarri, eta Aristotele oroitarazten digun *etika* hitza (*Etika Nikomakori*, *best-seller* ospetsua!) gaur egun eszenatokiko fokuen pean dago.

Grekeraz, *Etika*, "izateko modu ona"ri doakio, edo jokaeraren zuhurtasunari. Gauzak horrela, etika filosofiaren partea da, existentzia praktikoa Ongiaren errepresentaziorantz gidatzen duena.

Dudarik gabe, estoikoak izan dira, konstantziarik handienaz, etika zuhurtasun filosofikoaren *bi-*

hotz bihurtu dutenak eta ez parte soila. Pertsona zentzuduna, bere ardurapean dauden eta ez dauden gauzak bereizten jakinik, bere nahia lehenbizikoen inguruan antolatu eta bigarrenak patxadaz jasaten dituena litzateke. Gogoratzen dugu, bestalde, estoikoek filosofia arrautza batekin konparatzeko ohitura zutela: azala Logika izango litzateke, zuringoa Fisika, eta gorringoa Etika.

Descartesen ondoren, subjektuaren arazoa zentraltzat duten autore modernoentzat, *etika*, gutxi gorabehera, moralitatearen sinonimoa da, edo —Kantek esango lukeen bezala— arrazoi praktikoarena (arrazoi hutsa edo teorikoarekin desberdindua). Egintza subjektiboek, eta bere asmo errepresentagarriek, Lege unibertsal batekin izan ditzaketen harremanak osatzen dute gaia Etika Subjektu baten praktiken epaiketa-printzipioa da, subjektu hori bakana nahiz kolektiboa izanik.

Nabarmentzekoa da Hegelek bereizketa fina egin zuela "etikaren" (*Sittlichkeit*) eta "moraltasunaren" (*Moralität*) artean. Printzipio etikoa egintza *berehalakoa*ri egokitu zion, eta egintza *hausnartuari* berriz, moraltasuna. Adibidez, "ordena etikoaren funtsa berehalako erabakia da[1]" esan zuen.

Gaur egungo "etikarako itzulerak" etika hitza zentzu nabarmenki gandutsuan erabiltzen du, hala ere Kantengandik (epaiketaren etika) hurbilago dago, Hegelengandik (erabakiaren etika) baino.

Egia esan, etikak gaur egun "gertatzen denarekko" harreman-printzipioa izendatzen du: egoera historikoetaz (giza eskubideen etika), egoera tekniko-zientifikoetaz (bizidunen etika, bioetika), egoera "sozialetaz" (izaki-multzoaren etika), egoera mediatikoetaz (komunikazioaren etika), eta abarretaz egiten dugun iruzkinaren erregulazio lainotsua da.

Iruzkin eta iritzien araua instituzioei atxikita dago, eta bere autoritate propioaz baliatzen da: Estatuak izendaturiko "etikaren batzorde nazionalak" daude. Profesio guztiek galdetzen diete beren buruei euren "etikaz". "Giza eskubideen etika"ren izenean expedizio militarrak antolatzeraino ere heldu dira.

Etikaren aipamenaren inflazio sozialdua dela eta, eskuartean duzuen saio honen apustua bikoitza da:

— Lehen unean, fenomeno honen izaera zehatza aztertzen ahaleginduko gara; berau baita, bai iritzian eta bai instituzioetan, momentuko joera "filosofiko" nagusia. Egiazko nihilismo bat baino ez dela, pentsamendu ororen ukapen mehatxugarria dela erakusten saiatuko gara.

— Bigarren unean, aipatu joerari *etika* hitza disputatuko diogu, zentzu guztiz bestelakoa emanez, Kategoria abstraktuekin lotu beharrean (Gizakia, Zuzenbidea, Bestea...) *egoerekin* egokituko dugu. Biktimentzako errukiaren dimentsio bat egin beharrean, *prozesu singularren* ikur iraunkorra egingo dugu. Kontzientzia kontserbadore soilak jokoan jarri ordez, egien destinoa ipiniko dugu tartean.

I GIZAKIA EXISTITZEN AL DA?

Gaur egun hitzari ematen zaion erabilera arruntean, etika "gizakiaren eskubideei" dagokie era pribilegiatuan —edo, horren menpe dagoen bizidunaren eskubideei.

Edonon ezagutzeko moduko subjektua existitzen dela uste da, eta horrek, nolabait naturalak diren "eskubideak" dauzkala: biziraupenaren eskubidea, ihaulia ez izatekoa, "oinarrizko" eskubideak izatekoa (iritzia, agintarien aukeratze demokratikoa, eta abar). Eskubideok, ustez, ebidenteak eta kontsentsu zabal baten objektua dira. "Etika" beraz, eskubide horietaz arduratzea eta betearaztea litzateke.

Gizakiaren eskubide naturaletarako itzulera hau nabariki lotuta dago marxismo iraultzailearen eta haren menpeko ziren engaiamendu progresistaren irudi guztien hondorapenarekin. Edozein seinale kolektibo galdu eta gero, "Historiaren zentzuaren" ideiaz gabeturik, iraultza sozialari gehiago itxaron ezinik, intelektual asko, eta iritzi publikoaren sektore zabalak beraiekin batera, inkorporatu egin dira, politikan, mota kapitalistako ekonomiara eta demokrazia parlamentariora. "Filosofian", antzinako etsaien ideologia etengabearen birtuteak berraurkitu dituzte: engaiamendu antolatuaren beharraren aurka, indibidualismo humanista eta eskubideen defentsa liberala. Emantzipazio-politika kolektibo berria bilatu beharrean, funtsean, ezarritako "mendebaldeko" ordenaren lemak onartu dituzte.

Hori eginez, hirurogeiko urteetan pentsatu eta proposatu zuten guztiarekin alderatuz, mugimendu erreaktibo bortitza diseinatu dute.

1. *Gizakiaren heriotza?*

Michel Foucaultek eskandalua sortu zuen bere garaian Gizakia, subjektu modura ulertuz gero, kontzeptu historikoa eta eraikitakoa zela esan zuenean, diskurtso-erregimen baten barnekoa, eta ez denboraz kanpoko ebidentzia, eskubideak edo etika unibertsala eraikitzeko modukoa. Kontzeptu horren pertinentziaren amaiera iragarri zuen, zentzua ematen zion diskurtso-mota bakarra historikoki ahiturik zegoelako.

Ildo beretik, Louis Althusserek, Hegelek ez bezala, historia ez dela Espirituaren —edo subjektu-sustantziaren— bilakaera absolutua zioen, prozesu arrazional arautua baizik, "subjektu gabeko prozesua" deitzen zuena; eta horretara heltzeko zientzia berezi bat baino ez zegoen: materialismo historikoa. Hemendik ondorioztatzen zuen eskubideen humanismoa eta etika abstraktua eraikuntza imaginarioak —ideologiak— baino ez direla, eta beharrezkoa dela berak "anti-humanismo teorikoa" deitzen zuen bidearekin engaiatzea.

Aldi berean, Jacques Lacanek psikoanalisia joera psikologiko eta normatibotik ateratzeari ekin zion. Nia, unitate imaginarioaren irudia, eta Subjektua erabat desberdindu behar zirela erakutsi zigun. Subjektuak inolako sustantziarik, inolako "naturarik" ez zuela. Lengoaiaren lege kontingenteen, desioaren objektuen historia beti singularraren menpe zegoela. Horri jarraikiz, sendaketa analitikoa desio "normalaren" berrezarpen gisa planteiatzen zuen ikuspen oro iruzurra zela zioen, eta orohar, "giza subjektuaren" ideari eusteko inolako araurik ez dagoela, filosofiaren zeregina, subjektu horren

betebeharrak eta eskubideak enuntziatzea izango litzatekeelarik.

Modu horretan kritikatu zutena Gizakiaren identitate —natural zein espiritual— baten ideia zen, eta, ondorioz, gaur egun ulertzen den moduko doktrina "etikoaren" oinarria bera: gizakiei orohar dagokien kontsentsuaturiko legedia, beren beharrei, beren bizitza eta heriotzari dagokiena. Are gehiago: gaizki dagoenaren, giza esentziari komeni ez zaionaren mugaketa unibertsal eta nabaria.

Beharbada, honek, Foucaultek, Althusserrek edo Lacanek dagoenaren onarpena predikatu zutela esan nahi du, jendearen zoriaren aurreko axolagabekeria, zinismoa? Segidan argituko dugun paradoxa batengatik *guztiz bestela* da: denak izan ziren, beren modura, kausa baten aldeko ekintzaile erne eta adoretsuak, gaur egun "etika" eta "eskubideen" mantentzaileak baino askoz harruntzago zeudenak. Michel Foucault, adibidez, konprometiturik zegoen, modu bereziki zehatzean, kartzelaratuen arazoarekin, eta gai horri eskaini zion bere denboraren parte handi bat, agitatzaile eta antolatzaile gisa talentu neurtezina zuela frogatuz. Althusserrek, emantzipazio egiazko politikaren birdefinizioa baino ez zuen buruan. Lacanek bere aldetik, klinikari "totala" zela alde batera utzirik, bere bizitzaren parterik argiena jendea entzutera dedikatzeko punturaino, bere burruka psikoanalisi amerikarraren norabide "normatiboen" kontra eta pentsamenduak *american way of life* delakoarekiko zeukan menpekotasun zitalaren kontra ulertu zuen, burruka hori engaiamendu erabakiortzat zeukalarik. Modu honetara, antolamendu eta polemika-arazoak, bere iritziz, arazo teorikoekiko etengabe homogeneoak ziren.

Gizakiarenganako eta bere eskubideetarako itzulerak "ideologiek" sortutako "abstrakzio hilkorretatik" libratu gaituela aldarrikatzen dutenean, gaur egungo ideologia "etikoaren" defendatzaileak munduaz trufatzen ari dira. Zoriontsuak ginateke, egoera konkretuekiko hain ardura iraunkorra ikusiko bagenu, errealari hain arreta mantenitua eta pazientea eskainiko balitzaio, eta intelektualen inguru ohikotik, itxuraz, urrun dagoen jenderik dibertsoenarengana hurbilduz inkesta eragileak egiteari denbora zabalagoa emango balitzaio; 1965 eta 1980 bitartean ikusi genituen modukoak bederen.

Egia esan, "Gizakiaren heriotzaren" gaia, errebelamenduarekin, ezarritako ordenarekiko insatisfakzio erradikalarekin eta egoeren errealarekiko konpromezu osoarekin bateragarria dela ikusteak froga ederra eman digu, etikaren eta giza eskubideen gaiak ongi hornituriko mendebaldeko bizilagunen egoismo asebetearekin, boteretsuen zerbitzuarekin eta publizitatearekin bat datozela ikusten dugun bitartean. Horiek dira egitateak.

Egitate horien argipenak norabide etikoaren oinarrien azterketa zeharkatzea exijitzen du.

2. Eskubideen etikaren oinarriak

Norabide horren erreferentzia explizitua, corpus filosofiko klasikoan, Kant[2] da. Momentu hau "Kantenganako itzulera" zabal baten unea dugu, eta, egia esan, bere xehetasunak eta dibertsitatea labirintikoak dira. Hemen "batezbesteko" doktrina baino ez dugu ikusiko.

Funtsean, Kantengandik erretenitzen dena (edo Kanten irudi batetik, edo, hobeto esanda, "zuzen-

bide naturalaren" teorikoetatik), formalki ordezkagarriak diren eta kontsidero enpirikoen edo egoeren azterketen menpe egon behar ez duten eskakizunen inperatiboen existentzia da; inperatibo horiek ofentsa, krimen edo Gaizkiaren kasuei dagozkielarik; horri hauxe gehitzen zaio, hots, eskubide batek, nazionala zein internazionala izan, baieztatu egin behar dituela. Ondorioz, gobernuek inperatibook agertarazi behar dituzte beren legedietan, eta bertan, inperatiboei, exijitzen duten errealitate guztia eman behar diete; horrela ez bada, bidezkoa da horien kontra ekitea (eskusartze humanitariorako eskubidea, edo eskubidearen eskusartze-eskubidea).

Etika horrela ikusiz gero, Gaizkia *a priori* bereizteko gaitasuna (etikaren erabilera modernoan, Gaizkia —edo negatiboa— lehena da, barbaroa denaz kontsentsua suposatzen baita), eta irizpenaren azken printzipioa da aldi berean, batez ere irizpide politikoarena: hauxe da hain zuzen ere *a priori* identifikaturiko Gaizkiaren kontra ikusgarriki interbenitzen duena. Zuzenbidea bera, ezer baino lehenago, Gaizkiaren "kontrako" zuzenbidea da. "Zuzenbide-Estatua" beharrezkoa baldin bada, Gaizkia identifikatzen duen espazioa baimentzen duen bakarra delako da (hots, "iritzi askatasuna", ikuspuntu etikotik, lehen lehenik Gaizkia izendatzeko askatasuna da), eta baita ere, gauzak argi ez daudenean, arbitratzeko bitartekoak ematen dituelako (arreta judizialen aparatua).

Konbikzio gune honen aintzinasmoak argi daude:

1) Behin giza subjektu orokorra suposatu ondoren, honi gertatzen zaion txarra unibertsalki identifikatzeko moduan egonik (nahiz eta unibertsalitate hori "iritzi publikoa" izen guztiz

paradoxikoarekin izendatzen duten), subjektu hori aldi berean, subjektu pasiboa, edo patetikoa edo isladatzailea dateke: sufritzen duena; eta bestetik, irizpidearen subjektu, edo aktiboa, edo mugatzailea: sufrimendua identifikatuz, eskura duen edozein bitarteko erabiliz, hura geldiarazi behar duela dakiena.

2) Politika etikaren menpe dago gauzen ikuspen honetan, benetan garrantzia duen puntutik: zirkunstantzien ikuslearen irizpidea, kupidatsua eta haserretua.

3) Gaizkia da Ongia xedatzeko abiapuntua, eta ez alderantziz.

4) "Giza-eskubideak" ez-Gaizkiari buruzko eskubideak dira: bizitzan irainik ez jasotzekoa eta ihaulia ez izatekoa (exekuzio eta erahilketarekiko izua), ez gorputzean (tortura, tratu txarrak eta gosearekiko izua), ez eta bere identitate kulturalean (emakumeen eta gutxiengoen umiliazioarekiko izua, etab.)

Doktrina honen indarra, beste inon baino, bere ebidentzian datza. Experientziaz dakigu, ongi jakin ere, sufrimendua ikusi egiten dela. XVIII. mendeko teorilariek jada errukia —bizidunaren sufrimenduarekiko identifikazioa— besteekiko erlazioaren baliabide nagusi egin zuten. Tiraniaren teorilari greziarrak ere ohartu ziren gobernarien ustelkeria, arduragabekeria eta krudeltasuna zirela beren deskredituaren zergati nagusiak. Elizek ongi dakite jakin, experientziaz, errazagoa dela gaizki dagoenaren gainean kontsentsua eraikitzea, ongi dagoenaren gainean baino: askoz errazagoa izan zaie beti egin behar ez dena adieraztea —hots, beren abstinentziekin nola kontentatu—, egin behar dena argitzea baino. Egia da

bestalde, politika izena merezi duen edozein politikak, jendeak bere bizitzaz eta eskubideetaz egindako errepresentazioan duela abiapuntua.

Beraz, honako hauxe ere esan daiteke: hona hemen, kontsentsu planetarioa oinarritzeko, eta bere buruari inposaketaren indarra emateko gai den ebidentzien gorputza.

Beharrezkoa da alabaina, gauzak horrela ez direla defenditzea, "etika" hori mamirik gabekoa dela alegia, eta errealitatea —era guztiz ikuskorrean—, egoismoen hedapenena, emantzipazio politiken desagerpenarena edo behin-behinekotasun puntakoena dela, biolentzia "etnikoen" ugalketena eta konpetentzia basatiaren unibertsaltasunarena dela defenditzea ere beharrezkoa da.

3. *Gizakia: animalia biziduna ala singularitate hilezina?*

Arazoaren gunea, etika gizakiaren eskubideen eta egintza humanitarioen menpe ipintzeko gauza den giza Subjektu unibertsalaren suposaketan legoke.

Ikusia dugu jadanik etikak subjektu honen identifikazioa, egiten zaion gaizkiaren ezagutza unibertsalaren menpe ipintzen duela. Beraz, etikak gizakia *biktima modura* definitzen du. "Ez horixe! —esango digute— Subjektu aktiboa ahaztu duzue, basakeriaren aurka aritzen den hori!" Izan gaitezen zehatzak, bada: gizakia *bere burua biktima gisa ezagutzeko gai dena da.* Definizio hau da onartezintzat hartu behar duguna. Eta hori, hiru arrazoi nagusirengatik:

1) Hasteko, biktima, abere jasankor, hilkor biluzia izatearen egoerak, gizakia animali azpiegiturarekin, bizidun identitate huts eta soilarekin asimilatzen duelako (bizitza, Bichatek[3] esan zuen bezala, "hiltzera erresistitzen den funtziomultzoa" baino ez da). Egia da humanitatea animali espezie bat dela. Hilkorra eta suntsitzailea dela. Baina rol guzti horietatik batek berak ere ezin du bizidunen munduan bakandu. Borrero moduan, gizakia animalia arbuiagarria da, baina kuraia behar da biktima bezala ere ez duela askoz gehiago balio esateko. Torturatuak izan diren[4] eta bizirik atera direnen kondaketa guztiek gauza bera erakusten digute, indarrez: ziega eta kontzentrazio-esparruetako borrero eta burokratek beren biktimak hiltegirako prest dauden animaliak bezala tratatu ahal izan baldin badituzte, ongi elikaturiko borreroek biktimekin amankomunean ezer izan gabe, biktimek beren burua animalia bihurtzea onartu dutelako da. Horretarako beharrezkoa dena bete dute. Hala eta guztiz ere, gauza frogatua da, horietako batzuk gizaki izaten segitzen dutela, eta horrela testimoniatu dutela. Baina, hain justu, beti gertatzen da hori, lekukoek beren testigantzetan erresistentzia ia ulertezin bezala agurtu duten eginiko esfortzu —ezagutza distiratsurako itzartzen duena— itzelari esker, *biktima-identitatearekin bat ez datorrelako.* Hor dago Gizakia, pentsatzeari eusten badiogu, Varlam Chalamov-ek bere *Récits de la vie des camps*[5] liburuan esaten duen moduan, zaldiak baino gehiago erresistitzen duen aberea, ez bere gorputz hauskorragatik, den hori izaten segitzeko ipintzen duen tematasunagatik baizik, hau da, biktima ez den zerbait, heriotzarako-izakia ez den zerbait, hots: *hilkorra ez den zerbait.*

Hilezina: horra hor, bizitza den olatu multiforme eta harraparian singularizatzen den heinean, Gizakiari egin dakizkiokeen kalterik txarrenek frogatzen dutena. Gizakiari buruz edozer pentsatzeko orduan, hortik abiatu beharra dago. Gauzak horrela, "giza eskubiderik" baldin badago, horiek ez dira, seguru asko, bizitzak heriotzaren kontra dituen eskubideak, edo biziraupenak miseriaren kontra dituen eskubideak. Hilezinaren eskubideak dira, berez finkatzen direnak; edo, sufrimendua eta heriotzaren gertagarritasunaren gainean bere subiranotasuna eraikitzen duen Infinituaren eskubideak. Azkenean guztiok hilgo garela eta hautsa baino ez dela geldituko esateak ez du ezertarako aldatzen hilezina den Gizakiaren identitatea, egoerak behartzen duen animaliaizan-nahiaren kontra dagoela baieztatzen duen unetik aurrera. Eta gizaki bakoitza, gauza jakina da, ustekabean, hilezin hori izateko gai da, zirkunstantzia handi zein txikietan, egia garrantzitsu edo bigarren mailakoak izateak ez du inporta. Kasu guztietan subjektibazioa hilezina da, eta horrek Gizakia egin egiten du. Hortik kanpo espezie biologiko bat existitzen da, "lumarik gabeko hankabikoa", bere xarma ere nabaria ez duela.

Eta hemendik abiatzen ez bagara (oso sinpleki ere esan daiteke: Gizakiak pentsatu egiten du, Gizakia zenbait egiaz ehundurik dago), Gizakia bere errealitate bizidun hutsarekin identifikatzen badugu, nahitaez printzipioak itxuraz erakusten duen errealaren kontra joango gara. Zeren, benebenetan, "bizidun" hori mesprezagarria baita, eta *mesprezatu egingo dugu*. Nork ez du ikusten expedizio humanitarioetan, ingerentzietan, legionari karitatetsuen lehorreratzeetan, ustezko Subjektu

unibertsala zatituta dagoela? Biktimen aldetik, ikaratuta dagoen animalia, pantailan agertzen dena. Ongileen aldetik, kontzientzia eta inperatiboa. Eta zatiketa honek zergatik ipintzen ditu beti berberak toki berberetan? Nork ez du sentitzen munduaren miseriaren gainean makurturiko etika honek Gizaki-biktima, Gizaki-ona, Gizaki-zuria ezkutatzen dituela? Egoeraren basakeria soilik "giza eskubideen" modura azaltzen den bezala, —beti egoera politiko bat den bitartean, pentsaera praktiko-politiko bat eskatzen duena, eta beraz beti tartean egiazko egileak daudenean— gure itxurazko bake zibiletik, zibilizatuari interbentzio zibilizatzailea eskatzen dion egoera inzibilizatu gisa hautematen da. Nolanahi ere, zibilizazioaren izenean egiten den interbentzio orok, egoerarekiko mesprezua *exijitzen* du, egoera osoarekiko —biktimak barne— lehenbizi. Kolonialismoari eta inperialismoari kritika adoretsuak eginez hamarkadak iragan ondoren, "etika" hau "mendebaltarren" autosatisfakzio lizunaren eta errepikatua den tesi baten garaikidea izatearen arrazoia hauxe da; tesi honen arabera, hirugarren munduaren miseria bere trebetasun faltaren, bere inanitatearen ondorioa da, laburtuz: bere *azpi-humanitatearen* emaitza da.

2) Bigarrenik, "consensus" etikoa Gaizkiaren ezagutzan oinarritzen baldin bada, orduan gizakiak Ongiaren ideia positibo baten inguruan biltzeko ahalegin oro, eta are gehiago Gizakia horrelako projektu batekin identifikatzeko saioa, *gaizkiaren beraren egiazko iturri* bihurtzen da benetan. Hau da orain dela hamabost urte buruan sartzen digutena: iraultza-projektu oro, "utopi-

kotzat" edukia —esaten zaigu—, amesgaizto totalitario bihurtzen da. Justizia edo berdintasun ideia bat inskribatzeko borondateak, txarrera jotzen du. Ongiaren aldeko edozein borondate kolektibok, Gaizkia ekartzen du[6].

Nolanahi ere, sofistika hori suntsitzailea da. Gakoa, engaiamendu etikoa bada, hots, *a priori* ezaguturiko Gaizkiaren aurka balioztatzea baldin bada, nondik etorriko da dagoenaren edozein aldaketari ekiteko behar dena? Nondik aterako du gizakiak, berez den hilezina izateko indarra? Zein izango da pentsamenduaren patua, asmaketa positiboa izan behar duela ongi dakigula edo, bestela, deus ere ez? Egia esan, etikagatik ordainduriko prezioa *kontserbadorekeria* sendoa da. Gizakiaren adiera etikoak, azken batean, biologikoa (biktimen irudiak) ala "mendebalekoa" (ongile armatuen poza) izateaz gain, baliabideen ikusmen positibo zabala eragozten du. Hemen goraipatu zaiguna, etikak legitimatu duena, ustezko "Mendebalaren" aldetik, egia esan, berak daukanaren kontserbazioa izan da. Jabetzaren gainean jarrita egonik (jabetza materiala, baina baita ere izanaren jabetza) etikak Gaizkia, nolabait, berak gozatzen ez duen zerbait dela erabakitzen du. Hala ere, *Gizakia, hilezina den aldetik, kalkulaezinetik eta jabetza-ezetik sostengatzen da. Izaki-ezetik sostengatzen da.* Gizakiari, Ongia ordezkatzea, bere indar kolektiboak harengana ordenatzea, ustekabe posibleen etorreraren alde lan egitea, izan daitekeena —dagoenarekiko hausdura erradikalean— pentsatzea debekatzen saiatzea, argi eta garbi, humanitatea bera debekatzea da.

3) Azkenik, Gaizkiaren mugaketa negatiboa eta *a priori*koa eginez, etikak egoeren singularitatea

pentsatzeko aukera —egintza propioki humano ororen abiapuntua izan beharko lukeena— debekatzen dio bere buruari. Horrela bada, ideologia "etikoarekin" bat datorren medikuak, bilduta eta batzordean, era guztietako kontsideroak medita ditzake "gaixoetaz", hauek biktimen multzo bereiztezinekoak kontsideratuz, giza eskubideen aldekoek egiten duten bezalaxe: azpi-gizaki errealen osotasun "humanoa" bailiran. Baina mediku berberorrek ez du arazorik ikusiko pertsona *hori* ospitalean, eta behar diren bitarteko guztiez, zaindua izan ez dadin, paperik gabekoa delako, edo Segurantza sozialean inskribituta ez dagoelako. Erantzunkizun "kolektiboak", berriro ere, behartu egiten gaitu! Hemen ezkutatu egin da egoera mediko bakarra baino ez dagoela: egoera klinikoa[7]; eta ez dagoela inongo "etikaren" beharrik (egoera *honen* ikuspen argiarena baizik) zirkunstantzia horretan medikua ez dela mediku jakiteko, egoera maximo posiblearen arautik tratatzen ez badu: laguntza *eskatzen dion* pertsona hori zaindu (ez dago ingerentziarik hemen!) azken ondorioetaraino, dakien guztiaren laguntzaz, existitzen direla dakien bitarteko guztiez baliatuz, eta bestelako kontsiderorik gabe. Eta Estatuaren aurrekontuaren kausaz, hilkortasun-tasaren estatistika dela edo migrazio-fluxuei buruzko legeak direla-eta, gaixoa zaintzea eragotzi nahi bazaio, bihoakio polizia! Are gehiago, bere behar hipokratiko hertsiak poliziari tiro egitea aginduko lioke. "Batzorde etikoak" eta osasun gastuetaz eta gestioaren erantzunkizunaz egindako beste hausnerketek, propioki medikoa den egoera

bakarrarekiko erabat kanpoaldekoak izanik, egia esan, egin dezaketen gauza bakarra egoera horrekin *fidel* izatea eragoztea da. Fidel izateak hau esan nahiko luke-eta: egoera horren baliabideak *azken ondorietaraino* tratatzea. Edo, nahi baldin bada, ahal den neurrian, egoera horrek humanitate baikorraz duena etorraraztea: egoera horretako hilezina izaten saiatu.

Izan ere, ideologia etikoaren menpe dagoen medikuntza burokratikoak, biktima indiferente eta estatistiko gisako "gaixoen" beharra dauka, baina edozein eskaera-egoera singular eta efektibok berehala gainditzen du. Horregatik medikuntza "gestionario", "erantzule" eta "etikoa" honelako zantarkeria egitera mugatzen da: "osasun-sistema frantsesak" zeintzu gaixo zaindu ditzakeen eta zeintzu Kinshasako errebaletan hiltzera bidali behar dituen, Aurrekontuek eta iritziak horrela exijitzen dutelako.

4. Zenbait printzipio

Beharrezkoa da "etikaren" dispositibo ideologikoa errefusatzea, gizakiaren definizio negatibo eta biktima gisakoaren aurrean amore ez ematea. Dispositibo horrek gizakia animalia hilkor sinplearekin identifikatzen du, atzerakoikeria kezkagarri baten sintoma da, eta, bere orokortasun abstraktu eta estatistikoak, egoeren singulartasuna pentsatzea eragozten du.

Horren aurrean hiru tesi ipiniko dugu:

—1 *Tesia*: Gizakia, bere pentsamendu positiboagatik, egiteko gai den egia singularrengatik, eta animalien arteko gogorrena eta paradoxikoena bihurtzen duen Hilezinagatik identifikatzen da.

—2 *Tesia*: Ongiaren ahalmen positibotik abiatuta, baliabideen tratamendu zabaletik eta atzerakoikeria —izakiaren kontserbazioa barne— errefusatzetik erabakitzen da Gaizkia beraz, eta ez alderantziz.

—3 *Tesia*: Humanitate oro egoera singularren pentsamenduan eginiko identifikazioan sustraitzen da. Ez dago etika orokorrik. Ebentualki, egoera baten baliabideak aztertzen dituzten prozesuen etikarik baino ez dago.

Baina, orduan, etika sofistikatua duen gizakia agertzen da, hauxe murmurikatuz: "Zentzuz kontrakoa! Zentzuz kontrakoa hasieratik. Etika ez da inola ere Subjektuaren identitatean oinarritzen, ez eta biktima ezagutu gisa egindako identitatean. Hasieratik bertatik, etika *bestearen* etika da, bestearekiko irekiera nagusia, identitatea diferentziaren menpe ipintzen duena."

Azter dezagun arrasto hau. Neur dezagun beraren berritasuna.

1 Hegel, *Phénoménologie de l'Esprit*, Aubier, 2. tomoa, 32. or. *Phénoménologie de l'Esprit* lanaren atal oso hau zaila da baina iradokigarria ere bai.

2 Kant, *Fondements de la métaphysique des moeurs*.

3 Bichat. XVIII. mendeko mediku, anatomista eta fisiologo frantsesa.

4 Henri Alleg, *La Question*, 1958. Ez dago txarto gugandik oso hurbil gertatu diren armada frantsesak sistematikoki 1954 eta 1962 bitartean, antolaturiko tortura-episodioak aipatzea.

5 Varlam Chalamov, Kolyma. *Récits de la vie des camps*, Maspéro-La Découverte, 1980. Liburu honek, propioki miresgarria izanik, egiazko etikari artearen forma ematen dio.

6 André Glucksmann, *Les Maitres Penseurs*, Grasset, 1977. Glucksmann da tematien aritu dena Gaizkiaren kontzientziaren nagusitasun absolutuaz, eta Ongiaren nagusitasun katastrofikoa filosofiaren kreazioa dela esanez. Ideologia "etikoak", beraz, bere

sustraien parte bat 70 urteetako amaierako "filosofo berrietan" dauka.

7 Cécile Winter, *Qu'en est-il de l'historicité actuelle de la clinique?* (Foucaulten meditazio bat abiapuntutzat hartuta). Agertzear. Testu honek, modurik errigurosoenean, medikuntzaren gaurko baldintzetan, exigentzia klinikoa erreferente bakar modura birformulatzeko borondate pentsatzailea adierazten du.

II BESTEA EXISTITZEN AL DA?

Etika, "Bestearen etika" edo "diferentziaren etika" moduan ikusteko abiapuntua, gehiago sortzen da Emmanuel Lévinasen tesietatik, Kantenetatik baino.

Lévinasek, ibilbide fenomenologikoa egin ondoren (Husserlen eta Heideggerren arteko aurkaketa eredugarria), etikaren mesedetan, filosofia egozteari eskaini zion bere lan osoa. Berari zor diogu, egungo modaren aurretik, nolabaiteko erradikalismo etikoa [8].

1. *Etica, Lévinasen arabera*

Eskematikoki esanda, Lévinasek hauxe mantentzen du: metafisikak, bere jatorri grekoak harrapatuta dagoela, pentsamendua, Berberaren logikaren menpe, sustantzia eta identitatearen nagusitasunaren menpe ipini du. Baina, bere ustez, ezinezkoa da Bestearen benetako pentsamendua lortzea (eta beraz, bestearekiko loturaren etika) Berberaren despotismotik hasiz gero, Berbera Bestea ezagutzeko gai ez delako. Berbera eta Bestearen dialektikak, "ontologikoki" bereburuarekiko-identitatearen nagusitasunaren menpetik kontsideratuta, pentsamendu efektiboan Bestearen ausentzia antolatzen du, bestearekiko benetako *experientzia* ezabatu, eta bestekotasunarekiko irekiera etikoaren bidea itxi egiten du. Beraz, beharrezkoa da pentsamendua jatorri desberdin baterantz higitzea, jatorri ez greko baterantz, Bestearekiko irekiera erradikal eta lehena proposatuko duen hartara, ontologikoki identitatearen eraiketaren aurrekoa denera. Lévinasek higidura horretarako euskarria tradizio judutarrean

aurkitu zuen. Legeari (Lege judutarrak duen aldibereko zentzu antzina-antzinakoan eta efektiboan) izena ematen diona, hain zuzen ere, Berberaren-aurreko-izakian oinarrituta, Bestearekiko harremanaren etikak pentsamendu teorikoarekin duen aurrekotasuna da, azken hau erregularitate eta identitateen erreferentzia "objektibo" bezala ulertzen delarik. Legeak, hain justu, ez dit existizten dena esaten, besteen existentzia inposatzen duena baizik. Legea (Bestearena) eta legeak (errealarenak) kontrajar genitzake.

Pentsamendu grekoarentzat, behar bezala jokatzeak aurretik experientziaren kontrol teorikoa edukitzea eskatzen du, egintza izakiaren razionaltasunarekin bat etortzeko. Hortik aurrera Hiriaren lege*ak* daude eta egintzarenak. Lévinasek ematen dion zentzuan bederen, etika judutarrarentzat, subjektu hausnartzailea kanporatzen duen Bestearekiko irekieraren berehalakotasunean sustraitzen da guztia. "Zuak" "nia" garaitzen du. Hori da Legearen zentzu guztia.

Lévinasek, Bestearen originaltasuna frogatzeko asmoarekin, gai fenomenologikoen zerrenda bat proposatzen du. Gai horien artean nagusia aurpegiarena da. Bestearen emaitza singularra eta "pertsonala", epifania haragizkoaren bidezkoa, ezagutza mimetikoaren froga ez dena ("Antzekoa" den Bestea, nirekiko identikoa), baizik eta, alderantziz, berarengandik abiatuta, agertzen delako Bestearengana kontsagratua, eta nire izatetik bokazio horretara emana dena.

Lévinasentzat etika da *pentsamenduaren izen berria*, bere atzipen "logikotik" (identitate-printzipioa) bestekotasun fundatzailearen Legera makurtuz higitu den pentsamendua.

2. *Diferentziaren etika*

Jakinik edo jakin gabe, dispositibo honen izenean azaltzen zaigu gaur egun etika "bestearen ezagutza" dela (beste hori ukatzen duen arrazakeriaren aurka), edo "diferentzien etika" (etorkinen bazterketa nahi lukeen nazionalismo substantzialistaren aurka, edo izate femeninoa ukatzen duen sexismoaren aurka), edo "multikulturaltasuna" (portaera eta intelektualtasun-eredu bateratu baten inposaketaren aurka). Edo labur esanda, betiko "tolerantzia" zaharra, hots, nik egiten ez dudan bezala pentsatzen edo egiten duten besteekin ez haserretzea.

Zentzu onaren diskurtso honek ez du ez indarrik ez eta egiarik ere. "Tolerantzia" eta "fanatismoaren" artean, "diferentziaren etika" eta "arrazakeriaren" artean, "bestearen ezagutza" eta "larridura identitarioaren" artean, deklaratzen duen lehiaketa aldez aurretik galduta dauka.

Filosofiaren ohoreagatik, beharrezkoa da, lehenik eta behin, "diferentziarako eskubidearen" ideologia, edo "beste kulturekiko" borondate onaren katixima garaikidea, Lévinasen egiazko kontzepzioetatik bereziki urrun daudela onartzea.

3. *Bestearengandik Guztiz-Bestearengana*

Lévinasen zentzuan ulerturiko etikari egin zekiokeen objekziorik handiena —baina azalekoena ere bai— honako hau litzateke: zerk froga dezake nik Bestearekiko dudan orientazioaren originaltasuna? Aurpegiaren, ferekaren, maitasunaren azterketa fenomenologikoek ezin dute, berez, *Totalité et infini*ren egilearen tesi anti-ontologikoa (edo identitatearen kontrakoa) sostengatu.

Bestearekiko sarbidea neure irudi bikoiztutik sortzen duen kontzepzio "mimetikoak", berdinberdin argitzen du beste horren atziketan dagoen norbere buruaren ahanzketa: nik maite dudan hori ni-neu-urrunean da, zeinak, hain justu, nire kontzientziarako "objektibaturik" dagoelako, datu egonkor gisa eraikitzen nauen, *bere kanpokotasunean* gertaturiko barnekotasun modura. Psikoanalisiak oso ongi azaldu du bestearekiko identifikazioan eraikitako Niak —ispilu-efektu horrek[9]— narzisismoa (atsegina hartzen dut bestearen kanpotasunean, ni-neuretzako ni-neu ikusgaia naizen heinean) eta agresibitatea (nik besteari nire heriotz bultzada, nire autosuntsiketa desio arkaikoa zuzentzen diot) konbinatzen dituen modua.

Nolanahi ere, Lévinasek trasmititu nahi digunetik urrun gaude. Beti bezala, fenomenoen agerpenaren analisi soilak ezin du orientazio dibergenteen artean erabaki.

Beharrezkoa da, gainera, orientazio bat *erabakiko* duten pentsamenduaren axiomak explizitatzea.

Zailtasuna, axioma horien aplikazio-gunearena izanik ere, horrela esan daiteke: Besteak Berberarekiko duen nagusitasun etikoak, bestekotasunaren experientzia distantzia baten experientzia gisa, edo ez-identitate funtsezkoaren experientzia gisa ontologikoki "bermatuta" egotea exijitzen du, horren zeharkaketa experientzia etikoa bera delarik. Bestearen fenomeno hutsak, alabaina, ez du horrelako bermarik. Eta hori guztiori, bestearen agertze hutsa antzekotasun edo imitazio bezala hartu *daitekeela* egia delako, eta horrela Berberaren logikara berreraman gaitzakeelako. Besteak

beti du nire antz handiegia, bere bestekotasunerako irekiera jatorrizkoaren hipotesia *beharrezkoa* izateko.

Dena dela, beharrezkoa da bestearen fenomenoa (beraren aurpegia) bestekotasun erradikal baten testifikua izatea, nahiz eta berez, bakarrik, ez duen baldintza hori betetzen. Beharrezkoa da Bestea, finituan agertzen zaidan bezala, bestearekiko distantzia propioki infinituaren epifania izatea, horren zeharkaketa jatorrizko experientzia etikoa delarik.

Honek esan nahi du etikaren ulergarritasunak Besteari, nolabait, experientzia finitu hutsa gainditzen duen *bestekotasun printzipio batek eramana* izatea inposatzen diola. Printzipio honi Lévinasek: "Guztiz-Bestea" deitzen dio, eta hori da, argi eta garbi, Jainkoaren izen etikoa. Ez dago inongo Besterik, Guztiz-Bestearen fenomeno berehalakoa izango ez bada.

Ez dago ez-identikoarenganako orientazio finiturik, ez badago beragandik kanpo irauten duenarenganako printzipioaren orientazio infinitua. Ez dago etikarik, Jainko erabakiezina ez badago.

Lévinasen projektuan Bestearen etikak berberaren ontologia teorikoarekiko duen nagusitasuna, axioma erlijioso batekin guztiz lotuta dago, eta pentsamendu honen higidura intimoa eta bere zehaztasun subjektiboa iraindu egingo genituzke, berak bildutakoa banandu daitekeela pentsatuko bagenu. Egia esateko, ez dago Lévinasen filosofiarik. Ez eta teologiaren "zerbitzura" dagoen filosofiarik ere: teologiak *anulaturiko* filosofia da (hitzaren zentzu grekoan), eta hura, bestalde, ez da teo-logia (izen grekoegia oraindik, eta Jainkoaren identitate eta predikuen bitartez

jainkotasuneranzko hurbilketa dakarrena) etika bat baizik, hain justu.

Nolanahi ere, erlijiozkotasunak bere horretan (Bestea, Guztiz-bestearen autoritate esanezinaren pean birlotzen duenak) duen azken izena etika izateak, are osoagoki urruntzen du etika "filosofia" izenaren pean suposa daitekeen guztitik.

Esan dezagun gordinki Lévinasen projektuak fermukeria paregabez gogora ekartzen diguna, hots, pentsagarria denaren eta egintzaren abiapuntuan etika ipintzeko ahalegin guztiek funts erlijiosoa dutela. Esan dezagun Lévinas pentsalari koherentea dela eta inongo estalketa edo abstrakzio-ariketa akademikorik ahanztaraz ezin dezakeen egoera baten asmatzailea dela: bere erabilpen grekotik kanpo (bertan nabarmenki arlo teorikoaren menpe dagoelarik), orokorrean hartuta, etika diskurtso errukitsuaren kategoria bat da.

4. Etika erlijio deskonposatu gisa

Zer bihur daiteke, beraz, kategoria hau, bere itxurazko eraketaren dispositibo abstraktua ("bestearen ezagutza", etab.) mantentzen den bitartean bere balio erlijiosoa ezabatu edo mozorrotu nahi bada? Erantzuna argi dago: alferreko lana. Errukirik gabeko diskurtso errukitsua, gobernu ezgaientzako gehigarri espirituala, predikazioaren beharrengatik klase-burruka defuntua ordezkatzen duen soziologia kulturala.

Lehen susmo batek harrapatzen gaitu, etikaren eta "diferentziaren eskubideen" apostolu ezagunenak *apur bat eutsitako edozein diferentziaren aurrean nabarmenki ikaratuta* ikusten ditugunean. Zeren beraientzat, ohitura

afrikarrak barbaroak baitira, islamiarrak ikaragarriak, txinatarrak totalitarioak, eta abar. Egia esan, "beste" ospetsu hori ez da aurkezgarria, ez baldin bada beste *on* bat; hots, nor *gure berdina* baino hobeto? Diferentzien errespetua, bai horixe! Baina arretaz: diferentea demokrata-parlamentarioa, merkatu-ekonomiaren aldekoa, iritzi askatasunaren euskarria, feminista, ekologista... baldin bada. Horrela ere esan daiteke: nik diferentziak errespetatzen ditut, diferentea den horrek zehazki aipatu diferentziok nik bezala errespetatzen dituen neurrian. "Askatasunaren etsaientzako askatasunik ez dagoen" bezala, era berean ez dago errespeturik bere diferentzia besteen diferentziak ez errespetatzean oinarritzen duenarentzat. Etikaren aldekoek musulman "integristaren" antza duen edozertaz duten amorrazio obsesiboa ikustea besterik ez dago.

Arazoa da "diferentzien errespetuak" eta giza eskubideen etikak *identitate* bat ongi definitzen dutela dirudiela! Eta une horretatik, diferentzien errespetua soilik aplikatzen da diferentziok identitate horrekin (zeina, azken batean, "Mendebalde" aberats baina nabarmenki krepuskularra baino ez den) arrazonagarriki homogeneoak direnean. Era berean, etikaren aldekoaren begietarako, herri honetako etorkinak ez dira egokiro diferenteak "integratuak" ez diren bitartean, integrazioa nahi badute soilik (honek, hurbiletik begiratuz gero, honako hau adierazten duela dirudi: beraiek beren diferentzia *ezabatu* nahi baldin badute soilik). Esan genezake, gutxienez identitate "errebelatuaren" zabaltasuna ematen zion predikazio erlijiosotik bananduta, ideologia etikoa zibilizatu konkistatzailearen azken

hitza bilakatu dela: "Nire antzeko bihur zaitez, eta orduan zure diferentzia errespetatuko dut".

5. Berbererako itzulera

Egia esan, ez-erlijiosoa eta une honetako egiekin benetan garaikidea den pentsamenduaren ikuspuntutik, etikak besteari buruz duen predikua abandonatu beharra dago, argi eta garbi. Zeren benetako arazoa, erabat zaila, gehiago baita beste hau: *Berberaren ezagutzarena.*

Ezar ditzagun geure axioma propioak. Ez dago Jainkorik. Beste era batera esanda: Bata ez da. Izakiaren legea "Bat gabeko" anitza da —edozein anitz, bere aldetik, anitzen anitza baino ez delarik—. Gelditzeko puntu bakarra hutsa da. Pascalek ongi zekienez, infinitua egoera ororen arrunkeria da, eta ez traszendentzia baten predikua. Zeren infinitua, Cantorek multzoen teoriaren sorrerarekin frogatu zuen bezala, izaki-anitzaren formarik orokorrena baino ez da. Egia esan, edozein *egoera*, den neurrian, elementu infinituz osoturiko anitza da, horietariko bakoitza berez anitza delarik. Egoerarako (anitz infinitu batekiko) barnekotasun hutsetik kontsideratuz, *Homo sapiens* motako animaliak aniztasun arruntak dira.

Zer pentsatu orduan besteari buruz, diferentziei buruz, horien ezagutza etikoaz?

Bestekotasun infinitua, *dagoena* da, sinpleki. Edozein experientzia, infinituraino doan diferentzia infinituen hedaketa da. Ni-neure buruarekiko ustezko gogoeta bera ere, ez da inondik unitate baten intuizioa, diferentzien labirintoa baino, eta Rimbaud ez zegoen oker "*Nia* beste bat da" esan zuenean. Txinako nekazari baten eta norvegiar exekutibo gazte baten artean dagoen diferentzia, ni neu eta beste edonoren —ni neu barne— artean dagoen bezain handia da.

Bezain handia baina, baita ere, beraz, *ez gehiago eta ez gutxiago.*

6. Diferentzia "kulturalak" eta kulturalismoa

Etika garaikideak zarata handia ateratzen du diferentzia "kulturalen" inguruan. Darabilen "bestearen" kontzepzioak horrelako diferentziak hartzen ditu kontutan batez ere. Bere ideal handia "komunitate" kulturalen, erlijiosoen, nazionalen eta abarren kidetasun lasaia da, "exklusioaren" errefusa.

Mantendu behar duguna, ordea, hauxe da: diferentzia horiek ez dutela inolako interesik pentsamenduarentzat, giza espeziearen aniztasun infinitu bistakoa baino ez dira; eta hori, Irakeko "komunitate" txiita eta Texasko cow-boy potoloaren artean bezain nabaria, ni eta nire Lyongo lehengusuaren artean ere bada.

Etika garaikidearen oinarri objektiboa (edo historikoa) kulturalismoa da, ekandu, ohitura eta sinismenen aniztasunaren aurrean sentitzen den lilura benetan turistikoa. Eta bereziki eraketa imaginarioen (erlijioak, sexu-errepresentazioak, autoritatea gauzatzeko erak...) nahitaezko pitxikeriaren aurrean. Bai, "objektibotasun" etikoa soziologia arruntean sostengatzen da, basatien aurrean sentituriko txundidura kolonialaren heredentzia zuzena izanik, kontutan izanik gainera, basatiak gure artean ere badaudela (errebaletako drogatuak, sinesmen-komunitateak, sektak: barnebestekotasunaz hedabideek darabilten tresneria mehatxaria); eta guzti honen aurrean etikak, iker-

ketaren dispositiboa aldatu gabe, *bere* "ezagutza" eta *bere* "gizarte-langileak" ipintzen ditu.

Deskribapen hutsal horien aurka (hor kontatzen zaigun guztia, aldi berean bistakoa eta horrexegatik, kontsistentzia gabeko errealitatea da), egiazko pentsamenduak honako hau baieztatu behar du: diferentziak, dagoena izanik, eta egia oro, oraindik izan gabe izakiari-etorri behar zaiona izanik, diferentziak dira, prezeski, edozein egiak *pilatzen* duena, edo huskeria gisa agertarazten duena. Ezin da inongo egoera zehatzik argitu "bestearen ezagutza" medio. Edozein itxuraketa kolektibo modernotan badago, egon, leku askotako jendea, modu ezberdinez elikatzen dena, hizkuntza diferentez mintzatzen dena, kapela ezberdinak daramatzana, erritu zenbait praktikatzen duena, sexuarekiko harreman korapilatsuak eta aldakorrak dituena, autoritatea ala desordenua maite duena... eta horrela dabil mundua.

7. Berberetik egietaraino

Filosofikoki, bestea indiferentea baldin bada, arazoa Berberaren aldean dago. Berbera, egia esan, ez da den hori (diferentzien anitz infinitua, alegia), *bihurtzen* dena baizik. Esana dugu jadanik, Berberaren etorrera besterik ez dagokion zeraren izena: *egia* bat da. Soilik egia bat da, berez, *diferentziekiko indiferentea*. Betidanik eduki dugu ziurtasun hau, garai guztietako sofistak iluntzen saiatu badira ere: egia bat *guztiontzat berbera da*.

Norberarengan postulatu behar dena, eta guk "izaki hilezina" deitu duguna, seguru ez dela

"kultur" diferentziek —masiboak bezain baliogabeak— estaltzen dutena. Bere egiarekiko ahalmena litzateke, *egia batek bere "berberekotasun" propioarekin konbokatzen duen bera* izatea. Hots, zirkunstantzien arabera, zientzia, maitasuna, politika edo artearekiko ahalmena, zeren izen unibertsal horien azpian aurkezten baitira, gure ustez, egiak.

Benetako perbertsio baten ondorioz, horren prezioa historikoki itzela izan delarik, kultur erlatibismoari etika bat itsats dakiokeela pentsatu izan da. Zeren hori, Legearen oinarrian egoera gertagarri bat egon daitekeela pentsatzea baita.

Ez dago egi*ena* ez den etikarik. Edo zehatzago: soilik dago egia-prozesuen etika, mundu honetara *zenbait* egia ekartzeko lanaren etika. Etika Lacanek psikoanalisi*aren* etikaz mintzatzen deneko zentzuan hartu behar dugu, Kanti eta moral orokorrari kontrajarriz. Etika ez da existitzen. Soilik dago zerbait-*en* etika (politikarena, maitasunarena, zientziarena, artearena).

Ez dago, izan ere, Subjektu bakarra, dauden egiak bezainbeste subjektu daude, eta egia-prozesu bezainbeste subjektu-mota.

Guk, gure aldetik, oinarrizko lau "mota" markatzen ditugu: politikarena, zientziarena, artearena eta maitasunarena.

Giza animalia bakoitzak, horietako egia singularrean parte hartuz gero, bere burua lau tipo subjektibo horietako batean inskribatzen du.

Filosofiaren helburua *pentsamendurako leku* bat eraikitzea da, non bere garaiko egia singularretan agerturiko tipo subjektibo desberdinak elkarrekin existitzen diren. Baina

koexistitze hori ez da batasuna, eta horregatik ezin da Etika bakar *batez* hitz egin.

8 Emmanuel Lévinas, *Totalité et infini*, La Haye, 1961. Hau da beraren maisu-lana.

9 Jacques Lacan, "Le Stade du miroir" in *Écrits*, Seuil, 1966.

III ETIKA, NIHILISMOAREN IRUDIA

Gaizkiaren errepresentazio kontsentsuatu modura zein bestearekiko kezka modura mugatzen badugu, etikak, ezer baino lehen, mundu garaikideak Ongia deitzeko eta nahi izateko duen ezintasun karakteristikoa izendatzen du. Urrunago ere joan beharra dugu: beharraren aurreko etsipenak eta borondate negatibo hutsak -suntsitzaileak, alegia— osoturiko konbinaketa singular batek menperatzen duen unibertsoan, etikaren erresumak sintomarena egiten du. Eta konbinaketa hori da nihilismo deitu behar duguna.

Nietzschek ongi erakutsi du humanitateak nahiago duela ezereza, ezer nahi ez izatea baino. Behar itsu baten barne-azala modukoa den ezerezaren borondate honentzat gordetzen dugu nihilismo izena.

1. *Etika, beharraren zerbitzari gisa*

Beharraren izen modernoa, ongi dakigu, "ekonomia" da. Objektibitate ekonomikoa —bere izenaz deitu behar dugu: Kapitalaren logika—, gure erregimen parlamentarioek beharra berresteko aurretik kontra dauden iritzia eta subjektibitatea antolatzeko darabilten hori da. Langabezia, anarkia produktiboa, ezberdintasunak, eskulanaren erabateko baliogabetzea, kanpotarren jazarpena: horrek guztiorrek eguraldia bezain aleatorioa den ("zientzia" ekonomikoa metereologia baino zalantzagarriagoa da bere aurreikusmenetan) egoera baten inguruko kontsentsu degradatua dakar, non kanpoko bortxa zurruna eta amaigabea egiaztatzeko aukera dagoen.

Politika parlamentarioak, egun praktikatua den moduan, ez du, inola ere, printzipio batzuetan oinarrituriko helbururik finkatzen, ez eta horiek

lortzeko bitartekorik ipintzen; ekonomiaren ikuskizuna iritzi kontsentsuatu etsitu (nahiz eta, zer esanik ez, ezegonkorra) bihurtzen du. Berez, ekonomia ez da ez ona ez txarra, ez da inongo balioaren lekua (merkatal balioa baizik, eta dirua baliokide orokorra). Gutxi gorabehera ondo *doa*. Politika, kanpotasun neutro horren momentu subjektiboa edo balioemalea da. Mugimendua antolatzeko erabili nahi dituen baliabideak, egiatan aldez aurretik erreferente ekonomikoaren kanpo-neutraltasunak mugaturik eta indargabeturik daude-eta. Gauzak horrela, subjektibitate orokorra, ezinbestean, umore txarreko ezintasun antzeko batera da eramana, zeinean hauteskundeek eta alderdiburuen "esloganek" hutsunea betetzen duten.

Iritzi publiko moduko subjektibitate garaikidearen eraketaren lehen momentutik bertatik etikak laguntzailearen papera betetzen du. Bera baita hasieratik, projektu ororen gabezia, emantzipazio politika ororen eza, edo egiazko kausa kolektibo ororen ausentzia berresten duena. Gaizkiaren eta giza eskubideen izenean, baliabideen erabaki positiboei, humanitatearen gain-humanitate moduko Ongiari, denboraren erreferentzia den Hilezinari bidea moztuz, balioztapen guztien oinarri objektibo modura joko beharrezkoa onartzen du.

"Ideologien akabera" ospetsuak, alde guztietatik "etikaren itzulera" taxutzen duen berri ona bailitzan proklamatzen denak, praktikan, beharraren korapiloekiko atxekimendua eta printzipioen balio aktibo eta militantearen pobretze apartekoa adierazten du.

Izugarrikerien ikusketak eragindako sentimendu orokorretik abiatzen den "etika" kontsentsuatuaren ideia bera, "zatiketa ideologiko zaharkituak" ordezkatzen dituena, etsipen subjektiborako eta dagoena dagoen moduan onartzeko faktore garrantzitsua da. Zeren projektu emantzipatzaile ororen berezkoa, ezusteko posibilitate baten edozein agerketaren ezaugarri propioa, kontzientziak zatitzea baita. Bestela, egia baten neurtezintasuna, beraren berritasuna, eta jakintza ezarritakoetan egiten duen zuloa, nola inskriba daitezke egoera batean kontrario bipilak aurkitu gabe? Hain zuzen ere, eta, asmatzerakoan, egia bat *guztiontzat* den gauza bakarra izanik, ez da benetan gauzatzen iritzi nagusien *kontra* ez bada, eta azken hauek beti egiten dute lan, ez guztiontzat, apur batzuentzat baizik. Eta apur horiek, nola ez, beren posizioa, beren kapitalak, beren tresna mediatikoak dituzte. Baina batez ere, egia oro den moduko Intenporaltasunaren posibilitate baten gertaera azaroso eta behin-behinekoa baino ez denaren aurka, horiek errealitate eta denboraren indar geldoa dute. Mao Zedongek bere ohiko soiltasunarekin esaten zuen bezala: "Ideia bat baldin baduzu, beharrezkoa izanen da bat bitan banatzea". Izan ere, etikak kontsentsuaren gehigarri espiritual gisa aurkezten du bere burua. "Bitan banatzeak" izutu egiten du etika (hori ideologia da, iraganaren nostalgia...). Beraz, etikak ideia oro debekatzearen alde parte hartzen du, pentsamendu koherentearen edozein projektu galeraztearen alde, eta berriketa humanitarioa (zeinak, esan dugu jada, ez daukan berez humanitatearen ideia positibo bat bera ere ez) egoera pentsatugabeko eta anonimoei itsastearekin konformatzen da.

Era berean, "bestearenganako ardurak" ez du esan nahi, ez du inoiz esan nahi, *gure* egoerarako, edo gu-geuretzako, oraindik aztertu gabeko baliabideak erabiliko ditugunik. Legea (giza esku-

bideak, etab.) beti dago *hor jadanik*. Berak arautzen ditu irizpen eta iritziak edonon aldakor batean gertatzen den zorigaitzekoaz. Baina ez gara "Lege" horren oinarrietaraino, legea sostengatzen duen identitate kontserbadoreraino joango.

Gauza jakina da, Vichyren garaian juduen estatutuaren legea bozkatu zuen Frantziak, une honetan "etorkin klandestinoaren" izenaren pean, ustezko barne etsai baten arraza-identifikazio legeak bozkatzen dituela; subjektiboki beldurrak eta ezintasunak meneratuta daukan Frantzia, "eskubide eta askatasun irla" bat da. Etikak, irlatasun horren ideologia izanik, ongi estimatzen ditu, mundu osoan, "injerentziaren" ergelkeria dela medio, Zuzenbidearen kanoinariak. Baina hori eginez, *barruan* gorpu-biltegia eta autosatisfakzioa hedatuz, *orain eta hemen* egin daitekeenari buruzko (egin behar denaz, beraz) pentsamendu indartsu baten inguruko edozein bilketa kolektibo antzutu egiten du. Eta horregatik, berriz ere, kontsentsu kontserbadorearen aldakia baino ez da.

Dena den, ongi ikusi behar dugun gauza da, beharren (ekonomikoen) aurreko etsipena ez dela bakarra, ez eta txarrena ere, etikak sustraitzen duen espiritu publikoaren osagaien artean. Zeren, Nietzscheren ikurrak behartu egiten baikaitu kontutan hartzera nahi-ez-izate oro (ezintasun oro) ezerezaren borondateak lantzen duela, zeinaren beste izena heriotz bultzada den.

2. *Etika, "mendebalak" heriotza kontrolatzeko modura*

Gehienetan baino askoz harrituago egon beharko genuke, Jugoslavia ohiko gerrari eskainitako artikulu eta iruzkin guztietan etengabe erre-

pikatzen den oharpen bat dela-eta: azpimarratu egiten da, kilikadura subjektiboaren antzeko zerbaiten bidez, patetika apaingarri batez, izugarrikeria horiek guztiok "Paristik bi hegazkin-ordutara" gertatzen direla. Testu horien egileek, noski, giza eskubideen alde agertzen dira, etikaren alde, injerentzia humanitarioaren alde, Gaizkia ("totalitarismoen" erorketarekin exortzizaturik zegoela uste ondoren) itzulera beldurgarrian aritu delakoan. Bat-batean, oharpenak burugabekoa dirudi: printzipio etikoez ari bagara, Gizakiaren esentzia biktimistaz ari bagara, "eskubideak unibertsalak eta amaigabeak" baldin badira, zer inporta zaigu hegazkinez egindako bidaiaren iraupenak? "Bestearen ezagutza" are trinkoagoa litzakete nik beste hori, nolabait, eskurago izango banu, ala?

Hurbilaren *pathos* horretan, zirgitaldi ekibokoa somatzen dugu, beldurraren eta atseginaren erdian, izua eta suntsiketa, gerra eta zinismoa *gugandik hain hurbil* sentitzeagatik. Ideologia etikoak, ia ia aterpe zibilizatu seguruaren atean, Beste nahasia (Kroaziarrak, Serbiarrak, eta Bosniako musulman "enigmatiko" horiek) eta Gaizki frogatuaren konbinaketa haserregarri eta deliziosoa ipintzen digu. Etikaren *elikagaiak* Historiak etxean zerbitzatzen dizkigu.

Etika gehiegi elikatzen da Besteaz eta Gaizkiaz, hurbiletik ikusiz gero isilean (bere berriketaren iruntzi zitala den isiltasuna) horietaz ez gozatzeko. Egia esan, etikaren barne kontrolaren gunea beti da, nor hil behar den eta nor ez erabaki beharra.

Etika, nihilista da, beraren sakoneko ustea honako hau delako: *gizakiari benetan gerta dakiokeen gauza bakarra heriotza da*. Eta hori,

noski, horrela da, egiak ukatzen diren *neurrian*, egiek edozein egoeratan eragiten duten disjuntzio hilezina ukatzen den *heinean*. Egien azarearen euskarri posiblea datekeen Gizakia, ala heriotzarako (edo zorionerako, gauza bera da) izakia den Gizakiaren artean aukeratu behar da. Aukera hori bera da, filosofia eta "etikaren" artean, edo egien kuraiaren eta sentimendu nihilistaren artean egin behar dena.

3. *Bio-etika*

Hau da, nire ustez, gure egunerokotasuna atsegina egiten duten "txutxumutxuen" artean — areago oraindik, horietarik batek ere zentzurik ñimiñoena ez duenean—, eutanasiari buruzko betiereko eztabaidaz etikak egiten duen aukera pribilegiatua argitzen duena.

Eutanasia hitzak arazoa argiro ezartzen du: "Noiz eta nola, daukagun zorionaren ideiaren izenean, hil daiteke norbait?" Eutanasiak gune egonkorra izendatzen du, non sentimendu etikoak jokatzen duen. Ongi dakigu "pentsamendu" etikoak etengabeki "giza duintasuna" nola erabiltzen duen. Baina, hain zuzen ere, heriotzarakoizatearen eta duintasunaren arteko konbinaketak sortzen du "heriotza duinaren" ideia.

Batzordeek, prentsak, magistratuek, politikariek, apaizek, medikuek, duinki *administraturiko* -eta legeak onarturiko- heriotzaren definizio etikoaz eztabaidatzen dute.

Izan ere, sufrimendua, gainbehera, ez dira "duinak", ez datoz bat Gizakiaz eta bere eskubideez egiten dugun irudi leun, gazte eta ongi elikatuarekin. Nork ez du ikusten, eutanasiari buruzko "eztabaidak", batez ere, gaur egun zahartzaroaz eta heriotzaz dagoen sinbolizazio-gabezia erradikala izendatzen duela? Horien ikusketa *bizidunentzat* jasangaitza dela? Itxuraz kontraesankorrak diren bi bultzaden artean dago hemen etika: Gizakia Gaizki-ezaren arabera definitzen badugu, "zorionaren" eta bizitzaren arabera beraz, etika heriotzak liluraturik dauka eta aldiberean ezin du hau pentsamenduan inskribatu. Balantze honen emaitza, heriotza bera ikuskari ahalik eta diskretuen, desagerpen, bihurtzea da; bizidunek eskubide osoa dute beren kontzepturik gabeko asetasunezko ohiturak, irrealak, ez dizkiela hondatuko pentsatzeko. Diskurtso etikoa beraz, aldi berean fatalista da eta, argi eta garbi, eztragikoa: heriotzari "egiten-uzten" dio, erresistentziaren Hilezina kontrajarri gabe.

Ohar gaitezen, horiek baitira egitateak, "bioetika" eta eutanasiari buruzko estatuaren obsesioa, explizituki, nazismoaren kategoriak izan zirela. Funtsean nazismoa, goitik behera, Bizitzaren etika bat zen. "Bizitza duinaren" kontzeptu propioa zeukan, eta, bihozgabeki, berea egiten zuen bizitza ezduinekin amaitzeko beharra. Nazismoak isolatu eta goren puntura eraman ahal izan zuen disposizio etikoaren gune nihilista, etikak berriketa hutsa baino gehiago izateko bitarteko politikoak izan zituen unetik. Puntu honetaz, gure herrietan "bio-etikaz" arduratzen diren batzorde handien agerpena augurapen txarra da. Entzuten dira jada oihuak. Esango dute, naziengatik dela beharrezkoa, hain justu, bizitza eta duintasuna defenditzeko legislatzea, zientzien sakada oldartsuak gure eskuetan mota guztietako manipulazio genetikoak egiteko baliabideak ipintzen

dizkigunean. Oihu horiek ez gaituzte inpresionatu behar. Mantendu egingo dugu indartsuki, horrelako estatu-batzordeen eta horrelako legedien beharrak hauxe adierazten duela: kontzientzietan eta espirituen eraketan problematikak funtsean susmagarria izaten segitzen du. "Etika" eta "bioren" itsasketa, berez da mehatxagarria. *Eu*genismo (desondratua) eta *eu*tanasia (adeitsua) aurrizkien antzekotasuna ere mehatxagarria den bezala. "Ongi hiltzearen" doktrina hedonistak ez dio oztoporik egingo "ongi bizitzearen" instantzia ebidentea den "ongi sortzeko" saio benetan hilgarri eta indartsuari.

Arazoaren funtsa hauxe da, nolabait: zorionean oinarrituriko Gizakiaren edozein definizio nihilista da. Ongi ikusten da gure oparotasun gaixotiaren ateetan bultzada nihilistaren aurka eraikitako barrikadek, barne-erantzule gisa, batzorde etikoen hesi barregarri eta konplizea daukatela.

Lehen ministro batek, hiriko etikaren txantrea* denak, "ezin diogu munduko miseria guztiari harrera egin" deklaratzen duenean, ongi ezkutatzen du zeintzu erizpide eta zeintzu metodo segituko dituen esandako miseriaren zein parte onartzen den bereizteko, eta beste zeini erretentzio esparruetan geratzeko gonbitea egingo zaion, bere heriotz lekura itzul dadin, guk gure aberastasun zatiezinak goza ditzagun -hauek, jakina denez gainera, aldiberean gure zoriontasuna eta gure "etika" baldintzatzen dituzte-. Era berean, guztiz ezinezkoa da irizpide "arduratsuak" eta nabarmenki "kolektiboak" ezartzea, horien izenean bio-etikako batzordeak eugenismoa eta eutanasiaren arteko banaketa egin dezaten, edo gizaki zuriaren eta bere zorionaren hobekuntza,

eta munstroen, sufritzaileen eta ikuskizun penagarrien "duinki" egindako likidazioa.

Egoera klinikoaren azareak, bizitzaren gorabeherek, kontzientzien dedaloak, tratamendu zehatz batez nahasturik, eta salbuespenik gabe, bioetikaren —honen ariketa-esparrua eta izena bera nahiko nazkanteak direlarik— instantziek ponposoki eta hedabideen bitartez eginiko errekerimenduak baino mila aldiz gehiago balio dute.

4. Nihilismo etikoa, kontserbadoretasuna eta heriotz bultzadaren bitartean

Nihilismoaren irudi gisa harturik (eta gure gizartea unibertsalki aurkeztu ezin daitekeen etorkizunik gabe egoteak ematen dion indarraz), etika bi desioren artean dago, kolokan: desio kontserbadorea batetik, honek gure toki "mendebaltarrean" propioa den legitimitatea mundu osoan ezagutua izatea nahi luke, hots, ekonomia objektibo basatiaren eta zuzenbidearen diskurtsoaren nahasketa; desio hilgarria bestetik, keinu berberaz bizitzaren kontrol osoa agindu eta zaintzen duena, hots: heriotzaren kontrol "mendebaltarrean", *dagoena* kontsagratzen duena.

Honegatik guztiagatik prezeski, hobe genuke etikari —berau grekoz mintzatzen bait da— "eu-oudénose" deituko bagenio, nihilismo beatoa alegia.

Horren kontra, oraindik-ez-izatea izaera-modutzat daukan zerbait —baina gure pentsamenduarentzat eskuragarria dena— ipin daiteke soilik.

Garai bakoitzak —eta azken batean ez dago besteak baino hobea denik— bere figura nihilista propioa dauka. Izenak aldatzen dira, baina izen

horien pean ("etika", adibidez) beti aurkitzen dugu propaganda kontserbadore baten artikulazioa, eta katastrofe-desio iluna.

Kontserbadoretasunak ezinezkotzat jotzen duena nahi dugula aldarrikatuz eta ezerezaren desioaren kontra egiak baieztatuz soilik, erauz dezakegu nihilismoa. Edozein maitasun-topaketak, edozein birfundazio zientifikok, edozein asmakizun artistikok eta emantzipazio-politikaren edozein sekuentziak, gure begien aurrean ipintzen diguten ezinezkoaren posibilitatea, egien etikaren printzipio bakarra da —ongi bizitzearen etikaren kontra, zeinaren egiazko edukia heriotza erabakitzean baitatza—.

* Txantre: Kalonje mota bat. Katedraletako koruan otoitz abestua hasi eta zuzentzen duena. (Itzultzailearen oharra.).

IV EGIEN ETIKA

Lan mardula da filosofoentzat, hitzak prostituitzen dituen erabileratik erauztea. Platonek jada munduko pena guztiak pasa behar izan zituen *justizia* hitza —sofistek egiten zuten erabilera bihurri eta aldakorraren aurka— irmo mantentzeko.

Saia gaitezen, halere, arestian esandako guztiaren gainetik, *etika* hitza mantentzen, zeren Aristoteletik hasita, hitzaren erabilera arrazonagarria eginez, lerro luze eta estimagarria osatzen dutenak baitaude.

1. *Izakia, gertakizuna*, egia, subjektua*

Etika "orokorrik" ez badago, horretaz hornitu behar zen Subjektu abstraktuak huts egin duelako da. Animalia berezi bat dago soilik, zirkunstantziek subjektu *bihurtzeko* deitua dena. Edo hobeto esanda, subjektu baten osaketan parte hartzera deitua dena. Honek esan nahi du, bera den guztia, bere gorputza, bere ahalmenak, une zehatz batean, egia batek bere bidea egin dezan errekeritua dela. Giza-animalia, ordurarte ez zen hilezina izatera behartua da une horretan.

Zeintzu dira zirkunstantziok? Egia batenak. Baina zer ulertu behar da horretaz? Argi dago, *dagoenak* (anitzak, diferentzia infinituak, egoera "objektiboak": maitasun-topaketa baino lehenagoko bestearekiko harremanaren egoera arrunta, adibidez) ezin duela horrelako zirkunstantziarik definitu. Objektibitate-mota honetan, animalia, unibertsalki, ahal duen moduan konpontzen da. Suposatu behar dugu, beraz, subjektu baten osaketa konbokatzen duen hori *demasian* dagoela, edo egoeretara heltzen dela, egoerek beraiek, eta ho-

rietan aritzeko era normalek, azaldu ezin duten moduan. Esan dezagun ezen, animalia gainditzen duen (baina animalia da bere euskarri bakarra) *subjektu* batek, zerbait gertatua izatea exijitzen duela, "dagoenean" arrunki inskriba ezin daitekeen zerbait. *Gehigarri* horri dei diezaiogun *gertakizuna*[10], eta bereiz dezagun izaki-anitza, non ez den jada egia ukitzen (soilik iritziak), gertakizunetik, zeinak izateko modu *berri* bat erabakitzera behartzen gaituen. Honelako gertakizunak ezin hobeki daude testigaturik: 1792ko Iraultza frantsesa, Heloisa eta Abelardoren topaketa, fisikaren aurkikuntza galilearra, Haydnen musika estilo klasikoaren asmaketa... Baina, baita ere: Txinako Kultur Iraultza (1965-1967), maitasun-grina pertsonala, Grothendieck matematikariaren Topoen teoriaren sorrera, Schœnbergek eginiko dodekafonismoaren asmaketa...

Zein "erabakitan" sortzen da, orduan, egia baten prozesua? Bada, aurrerantzean, egoera *gertakizun-gehigarriaren ikuspuntutik* aztertzearen erabakian. Dei diezaiogun honi *fideltasuna*. Gertakizun bati fidela izatea, gertakizuna gainditu duen egoeran higitzea da, egoera gertakizunaren "arabera" pentsatuz (baina pentsamendu oro praktika bat da, frogapen bat). Eta honek, bai horixe, gertakizuna egoeraren lege erregular guztietatik kanpo dagoenez, egoeran izateko eta jokatzeko era berria *asmatzera* behartzen gaitu.

Argi dago, maitasun-topaketa baten efektuaren pean, eta benetan fidela izan nahi banatzaio, nire egoera arrunta "bizitzeko" modua goitik behera berrantolatu behar dudala. "Kultur Iraultza" gertakizunari fidela izan nahi banatzaio, politika (bereziki langileekiko harremanetan), tradizio

sozialistak eta sindikalistak proposatzen duten guztiz beste modu batean praktikatu behar dut. Era berean, Berg eta Webern, «Schœnberg» izena daraman gertakizun musikalari fidelak izanik, ezin dute, ezer gertatu izan ez balitz bezala, mende amaierako neo-erromantizismoarekin segitu. Einsteinen 1905eko testuen ondoren, horien berritasun erradikalari fidela banatzaio, ezin dut fisika bere alor klasikoan praktikatzen segitu. Gertakizunarekiko fideltasuna, gertakizuna suertatu den alor propioan (politikoan, maitasunarenean, artistikoan, zientifikoan...) egindako apurketa (pentsatua eta praktikatua) erreala da.

Gertakizun batekiko fideltasun-prozesu erreal bati deitzen diogu "egia" (egia *bat*). Fideltasun horrek egoeran *ekoizten* duenari. Esaterako, bata bestean txertaturik dauden bi gertakizunekiko (Txinako Kultur Iraultza eta Frantziako 68ko maiatza) fideltasuna pentsatzen eta praktikatzen saiatu ziren maoista frantsesen politika, 1966 eta 1976 bitartean. Edo musika "garaikidea" delakoa (izen onartu bezain bitxia), mende hasierako vienar handiekiko fideltasuna dena. *Hausketa inmanentea* da beraz. "Inmanentea", egia batek egoeran *bertan* eragiten duelako, eta ez beste inon. Ez dago egien Zerurik. "Hausketa", egia-prozesuak posible egiten dituena —gertakizuna— egoeraren ohituretan ez dagoelako, ezin delako ezarritako jakintzetatik pentsatu.

Egia-prozesua egoeran ezarritako jakintzekiko heterogeneoa dela esango dugu baita ere. Edo, Lacanen adierazpena erabiliz, jakintza horietan "zulogune" bat dela.

"Subjektu" deitzen zaio fideltasun baten euskarriari, egia-prozesu baten euskarriari. Beraz,

subjektua ez da, inolaz ere, prozesua baino lehen existitzen. Guztiz inexistentea da gertakizunaren "aurreko" egoeran. Egia-prozesuak subjektu bat *induzitzen* duela esango dugu.

Puntu honetan, komeni da kontutan izatea, honela pentsaturiko "subjektuak" ez duela berreskuratzen subjektu psikologikoa, ez eta subjektu bihurkaria (Descartesen zentzuan), ez eta subjektu transzendentala ere (Kanten zentzuan). Esate baterako, maitasun-topaketa batekiko fideltasunak induzituriko subjektua, maitasunaren subjektua, ez da moralista klasikoek deskribaturiko subjektu "maitetsua". Zeren, horrelako subjektu psikologikoa giza naturatik edo grinen logikatik baitator. Guk aipatzen dugunak berriz, ez du inolako aurrexistentzia naturalik. Maitaleak, maitale modura sartzen dira, bata zein bestea gainditzen dituen maitasun subjektu *baten* osaketan.

Era berean, politika iraultzaile baten subjektua ez da militante banakakoa, ezta ere, bestalde, "klase-subjektu" baten kimera. Izen desberdinak izan dituen (batzuetan "Partidu", besteetan ez) ekoizpen singular bat da. Eta noski, militantea subjektu horren osaketan sartzen da, berriro ere gainditua delarik (hain justu, demasia hori da hilezin bihurtzen duena).

Are gehiago, prozesu artistiko baten subjektua ez da artista ("jeinua", etab.). Egia esan, artearen subjektu-puntuak arte-lanak dira. Eta artistak subjektu horien osaketan hartzen du parte (lanak "bereak" dira), baina ezin da inondik inora esan "bera" direnik (eta, bestalde, zein "beraz" arituko ginateke?)

Gertakizunak singularitate murriztezinak dira, egoeretako "legez-kanpokoak". Egiazko fideltasun-

prozesuak hausketa inmanenteak dira, bakoitzean guztiz asmaturikoak. Subjektuak, egia-prozesuen gertaera lokalak izanik (egia-"puntuak"), indukzio bereziak eta parekaezinak dira.

Beharbada, subjektu horietaz aritzerakoan da zilegi "egien etikaz" hitz egitea.

2. *Etika baten definizio formala*

Orohar, egia-prozesu baten jarraipen printzipioari deituko diogu "egia baten etika", edo zehatzago eta konplexuago, *egia horren prozesuak induzitzen duen subjektuaren osaketan edonoren presentziari kontsistentzia ematen dion horri.*

Heda dezagun formula hau:

1) Zer ulertu behar dugu "edonor" hitzaz? "Edonor", giza espezieko animalia bat da, ezarritako jakintzek espeziaren barnean dagoela dioten anitz mota berezia. Gorputz *hau* da, dituen ahalmen guztiak barne, "egia-puntu" baten osaketan sartzen dena. Gertakizun bat eta, *fideltasun*-prozesu baten modu *jarraituan*, hausketa *inmanentea* izan direlako susmoarekin.

"Edonor" hori, noizbehinka, antzerki-dirdirapen batek pentsamendua kolokan jarri, atzitu eta desbideratu dion ikuslea dateke, modu horretan arte-une baten eraketa konplexuan sartu delarik. Edo matematika-problema batekin tematidabilenari, jakintza ilundu guztiak beren iturrien inguruan biraka dabiltzaneko lan eskergaiztoaren ondoren, soluzioaren argitasuna sortzen zaion unean. Edo, erreala denaren ikusmena aldi berean lanbroturik eta tokiz aldatuta daukan —bestearengan eutsita, maitasun aitopenaren unea birgogoratzen duelako— maitale

hori. Edo, bilera korapilatsu baten ostean, ordurarte aurkiezina zen enuntziatua sinpleki esatera heldu den militantea; ondoren, guztiok bat etorri dira enuntziatu hori lantzea dela egoera horretan komenigarriena.

Barnean dagoela testifikatzen duen egoeran atziturik, "edonor" delako hori, egia baten prozesuan, euskarri-puntu modura, aldi berean *bera* da, eta ez beste inor, guztien artean ezagutzeko moduko singularitate anitza, eta *bere buruaren gainetik* dagoena ere bai, fideltasunaren ildo aleatorioak, *beragandik pasatzen delako*, bere gorputz banakoa zeharkatuz, denboraren barrutik bertatik, eternitate-aldiune batean inskribatzen duelako.

Esan dezagun, berari buruz *jakin* daitekeena, dagoenarekin erabat konprometituta dagoela, eta ez dagoela, materialki, jakintza horren erreferentea ez den ezer. Baina hori guztiori egia-prozesuaren hausketa inmanentean dago atziturik, hain moduan ezen, bere egoera propioaren (politikoa, zientifikoa, artistikoa edo maitasunezkoa) eta *bihurtzen* den egiaren barne-kidea izanik, "edonor" delakoa, oharkabe eta barrutik, bera den anitz *jakin* horretatik zehar pasatzen den egiak *apurtuta* edo zulatuta dagoen.

Sinpleago ere esan daiteke: "edonor" hori egoera bateko eta egia baten zorizko ildoaren barne-kidea izateko, subjektu bihurtzeko, gai sentitzetik urrun zegoen.

Subjektu baten osaketan parte hartzen duen neurrian, norberaren subjektibazioa den neurrian, "edonor" hori, berak *jakin gabe* existitzen da.

2) Zer esan nahi du "kontsistentzia" hitzak? Laburki esanda, *ezjakinaren lege bat* dagoela. Izan ere, egia-subjektu baten eraketan, gertakizunaren

ondorengo fideltasunean, "edonor" delakoa "burubelarri" sartzen baldin bada, eta soilik horrela, arazoa oraindik da "edonor" hori zer *bihurtuko* den froga horretan.

Giza animaliaren portaera Spinozak "izatean irautea" deitzen duen horretatik dator, eta interesaren jarraipen hutsa besterik ez da, hots, norbere buruaren kontserbazioa. Iraunkortasun hau, *dakigunaren arabera*, edonoren legea da. Hala ere, egia baten froga ez da sekula lege horren pean jausten. Egoeraren barnean egotea edonoren patu naturala da, baina egia-subjektu baten osaketaren barnean egotea ildo propio batetik dator, hausketa jarraitu batetik, zeina oso zaila den izatean iraute soilarekin nola gainjartzen edo konbinatzen den jakitea.

Guk, "kontsistentzia" (edo "kontsistentzia subjektiboa") gainjartze edo konbinaketa horien printzipioari deitzen diogu. Bestela esanda, matematiken zaletu lehiatsuak *bere iraunkortasuna, iraunkortasuna bera apurtu edo kontra egiten dion horretan* —egia-prozesu baten barne egotean— *engaiatzen du*. Edota, maitasun-subjektuan inskribatuta dagoelako froga etengabearekin, guztiz "bera" izateko modua erakusten duen maitalea.

Azkenik, bere singularitate ("edonor" delako animalia) egiaren subjektu batean engaiatzean datza kontsistentzia. Edo: jakina denaren iraunkortasuna, ezjakinaren propioa den iraupenaren zerbitzura ipini.

Lacanek ukitu zuen jada puntu hau, etikaren ikur modura hauxe proposatu zuenean: "Norberak, norbere desioan, amore ez eman." Inkontzientearen subjektuaren eratzailea den aldetik, desioa,

batez ere, ezjakina da, hain moduan eze, "Norberak, norbere desioan, amore ez eman" horrela ere esan daitekeela: "Norberak, norbere buruaz ez dakienaz, amore ez eman". Beste hau ere gehi dakioke, hots, ezjakinaren froga gertakizunaren gehigarriaren urruneko efektua dela, gehigarri desagertu horrekiko fideltasunak, "edonor" horri egin dion zuloa, eta azkenik, amore ez emateak hauxe ere esan nahi duela: egia-prozesu batek norberari egindako atziketan amore ez ematea.

Baina egia-prozesua fideltasuna denez, "amore ez ematea" kontsistentziaren ikurra baldin bada —egia baten etikarena beraz—, erraz esan daiteke, "edonor" horrentzat, *fideltasun bati fidela izatean* datzala. Eta ezin du hori egin, ez badu, bere jarraipen printzipioan arituz, bera den izakian irauten. Jakina ezjakinaren bitartez *lotuz* (hori da, hain justu, kontsistentzia).

Egia baten etika erraz esan daiteke orduan: "Egin ezazu ahal duzuna zure pertseberantzia gainditu duen hori iraunarazteko. Etenean iraun. Harrapatu eta apurtu zaituen hori zure izakian harrapatu."

Kontsistentziaren "teknika" singularra da aldi bakoitzean, norberaren *animali* ezaugarrien araberakoa. Alde batetik —egia-prozesu batek errekeritu eta harrapatu ondoren— bihurtu den subjektuaren mesedetan, "edonor" delako batek bere angustia eta egonezina ipiniko ditu, beste horrek bere taxu handia eta patxada, besteak dominazio-gurari irenskorra, beste batek bere malenkonia, beste hark bere herabetasuna... "Kontsistentzia" batek giza aniztasunaren material osoa landu eta lot dezake, eta aldi berean, bai horixe, inertzia itzelak kontrajartzen dizkio;

hauek, "edonor" delakoa amore emateko tentazio etengabean, egoera "arruntera" itzultzeko zorian, ezjakinaren efektuak ezabatzeko arriskuan uzten dute.

"Edonor" horren osotasuna egiten duen materiale anitzaren bi funtzioen arteko gatazka kronikoan agertzen da etika: alde batetik, hedaketa sinplea, egoeraren barnean izatea, *interesaren printzipioa* dei dezakeguna; bestetik, kontsistentzia, ezjakinak jakina lotzen duelarik, *printzipio subjektiboa* dei dezakeguna.

Dagoeneko erraza da kontsistentziaren agerpenak deskribatzea, egien etikaren fenomenologiaren lehen lerroak marraztea.

3. "Kontsistentzia" etikoaren experientzia

Eman ditzagun adibide bi:

1) Interesa "izatean irautea" bezala definitzen badugu (gogora dezagun egoera anitzen barne-izate soila dela), hauxe ikusten dugu: kontsistentzia etikoa *interesik gabeko interes* modura agertzen da. Interesean du bere jatorria, iraunkortasunaren eragingailuak konprometitzen dituen heinean (giza animalia baten, "edonor" baten, ezaugarri singularrak). Baina, zentzu erradikalean, interesik gabea da, zeren bere asmoa ezaugarriak fideltasun batean biltzea baita, berau, bere aldetik, lehen fideltasun baterantz zuzentzen delarik, zeinak egia-prozesua eratzen duen, berez, animaliaren "interesekin" zerikusirik ez duena, horren iraunerazketaren aurrean axolagabe dena, eta helburutzat eternitatea duena.

Hemen *interes* hitzaren anbiguotasunarekin joka dezakegu. Egia da, matematikaren zaletu sutsuak,

teatroko besaulkira iltzetuta dagoen ikusleak, itxuraldatuta dagoen maitaleak, militante entusiastak, egiten dutenarekiko —Hilezin ezjakina beraiengan bihur dadin, horretarako gai zirela ez zekiten arren— sekulako interesa agertzen dutela. Munduan ez dit beste ezerk piztuko Hamlet berraurkitarazten didan aktore horrek piztu didan existentziaren bizipoza, edo pentsamenduan bi izateak esan nahi duena pertzibitzeak, edo geometria algebraikoaren problema horretan batbatean abartze zenbatezinak aurkitzeak, edo kale gorrian, lantegiaren atean egindako asanbladan, nire enuntziatu politikoek jendea bildu eta eraldatu egiten dutela egiaztatzeak. Hala eta guztiz ere, animalia hilkor eta predadorea naizen aldetik, ez da ukitzen nauen ezer gertatu hor, ez dago jakintza batek niretzat aproposa litzatekeen zirkunstantziarik dagoela adierazten didan ezer. Ni osorik nago han, nire osagarri guztiak *nire buruarekiko demasian* lotzen, zeinak nire bidez egia bat pasatzeak induzitzen duen. Baina horregatik ere, zintzilikaturik, apurtuta, atzera jota nago: interesik gabe. Ezin izango nuke beraz, kontsistentzia etikoa definitzen duen fideltasunarekiko fideltasunean, neure buruaz interesatu, eta nire interesei jarraitu. Nire interes-ahalmen guztia, nire izatean irautea izanik, isurita dago problema zientifiko horren ebazpenetik etorriko diren ondorioetan, edo mundua maitasunaren bi-izatearen argipean aztertzen, edo zer egingo dudan Hamlet eternalarekin, arrats batean izandako topaketaz, edo prozesu politikoaren hurrengo etapan, lantegi aurreko bilera sakabanatuko denean.

Egien etikan galdera bakarra dago: nola egingo dut, edonor naizen aldetik, nire izate soila gain-

ditzeari *jarraitzeko*? Nola jarraitu, dakidanaren eta ezjakinaren atzitze-efektuak era kontsistentean lotzeari?

Horrela ere esan dezakegu: nola jarrai gakizkioke *pentsatzeari*? Hots, nola mantenduko dut, nire izaki-anitzaren denbora singularr*ean*, nire izaki hori baliabide bakartzat edukita, egia batek nire bitartez subjektu baten osaketan etorrarazi duen Hilezina?

2) Egia guztiek, esana dugu jada, ezarritako jakintza eraisten dute, eta iritzien kontra ipintzen dira beraz. Egiarik gabeko errepresentazioak, kalean dabilen jakintzaren zati anarkikoak *iritziak* deitzen baitira.

Izan ere, sozialketaren zimentuak iritziak dira. Horiek dira giza animaliak —*guztiak* salbuespenik gabe— entretenitzen dituen gaia, ezin da bestela izan: egiten duen eguraldiaz; azken filmeaz; haurren gaixoez; soldata eskasez; gobernuaren gaiztakeriez; bertako futbol ekipoaren gorabeherez; telebistaz; oporretaz; urruneko zein hurbileko izugarrikerietaz; eskola errepublikarraren desengainuez; hard-rock talde baten azken diskoaz; animo-egoeraren une delikatuaz; etorkin gehiegi dagoen, ala ez; sintoma neurotikoez; instituzioaren arrakastez; platertxo ederrez; azken irakurketaz; behar dena merkeago aurkitu daitekeen dendez; automobilez; sexuaz; eguzkiaz... Zer egingo genuke guk, gizagaixook, hiriko animalien artean dabilen eta errepikatzen den hori guztiori gabe? Nolako ixiltasun deprimigarrira geundeke kondenatuta? Iritzia *komunikazio* ororen lehengaia da.

Ezaguna da hitz honek gaur egun duen arrakasta, eta zenbaitzuk bertan ikusten dutela

demokrazia eta etikaren alorrekoa den guztiaren sustraia. Bai, sarritan mantentzen da kontutan hartu behar dena "komunikatzea" dela, eta etika oro "komunikazioaren etika[11]" dela. Galdetzen baldin bada: komunikatu, noski, baina *zer*? Erraza da erantzutea: iritziak, giza animalia den anitz berezi horrek, bere interesen iritzimugaketan, anitzen hedadura osoari buruz eduki ditzakeen iritziak.

Egia-apurrik gabeko iritziak. Faltsutasun-izpirik gabekoak ere. Iritzia, egia eta faltsua baino honuntzago dago, hain zuzen ere, bere lan bakarra komunikagarria izatea delako. Egia-prozesu batetik datorrena ordea, *ez da komunikatzen*. Komunikazioa soilik da egokia iritzietarako (eta, errepika dezagun, ezin ahal izango genuke horiek gabe bizi). Egiei dagokien guztirako, beharrezkoa da *topaketa* egotea. Gai izateko naizen Hilezina ezin ahal izango litzateke niregan sozialketa komunikagarriaren bitartez piztua izan; fideltasunak *zuzenean* atzitua izan behar du. Bestela esanda: hausketa inmanente baten trazaketak bere izaki-anitza apurtua, eta azkenik, jakin gabe bada ere, gertakizunaren gehigarriak errekeritua izan behar du. Egia baten subjektuaren eraketan sartzeko bidea, *suertatzen zaizun hori* baino ezin da izan.

Horren lekukotza, gutariko edonor fideltasun batek harrapatu gaitueneko zirkunstantzia zehatzek ematen dute: maitasun-topaketa, poema hori zeuri *zuzendutako* delako bat-bateko sentsazioa, aurretiaz berdin zitzaizun eta orain meneratzen zaituen teoria zientifiko horren edertasuna, leku politiko baten ulermen aktiboa... Filosofia bera ez da, honetan,

salbuespena, zeren mundu guztiak dakien bezala, interesik gabeko interesari eusteko, beharrezkoa da, bizitzan behin bederen, Maisu baten hitza aurkitu izana.

Guzti honengatik, egia baten etika "komunikazioaren etikaren" guztiz bestelakoa da. Egia baten etika *errealaren* etika da, Lacanek iradokitzen duenari jarraikiz, errealerako irispidea topaketaren alorrekoa dela benetakoa baldin bada. Eta "Jarraitu"! ikur etikoaren edukia den kontsistentziak, soilik egin dezake aurrera errealaren hariari eusten badiogu.

Honela ere formula zitekeen hori: "Ez ahaztu inoiz, topatu duzun hori." Baina ez-ahazte hori ez dela memoria bat jakinik (ai! kazetarien "memoriaren etika" jasanezina!). Ez-ahaztea, nire izaki-anitzaren plangintza —eta topaketa baten zeharkaketak subjektu bilakatu duena—, berak daukan Hilezinean pentsatzean eta praktikatzean datza.

Hau da, aspaldiko liburu batean[12], modu honetan formulatu nuena: "Maite ezazu, bi aldi jarraietan sekula uste izango ez zenukeen hori". Gauzak horrela, egia baten etika iritziaren guztiz kontrakoa da, edo etika soilaren kontrakoa, azken hau iritziaren eskema bat baino ez baita; iritziaren ikurra hauxe baita: "Maite ezazu soilik betidanik uste izan duzuna".

4. *Aszetismoa?*

Egien etika aszetikoa al da? Errenuntzia egitea eskatzen al digu? Eztabaida hau, filosofiaren egunsentitik bertatik, funtsezkoa da. Jadanik Platon, gaiak ukituta, tematí zebilen, filosofoa, egi*en*

gizona, tirano gozatzailea baino "zoriontsuagoa" dela frogatu nahian, eta horren ondorioz, animali sentikorrak ez diola ezer funtsezkori errenuntzia egiten bere bizitza Ideiei dedikatzen dienean.

Gure interesen jarraipenari utzi behar izateari "errenuntzia" deituko diogu; jarraipen horrek, egiatik kanpo egonik, gure izaki-anitz osoa egiten du. Badago errenuntziarik egia batek atzitzen nauenean? Dudarik gabe ez, zeren atzitze hori *existentzia-intentsitate berdingaitzez agertzen baita.* Izenak ere eman dakizkieke: maitasunean, zoriona dago; zientzian, poza (Spinozaren zentzuan: beatitude intelektuala); politikan, entusiasmoa; eta artean, plazerra dago. "Egiaren afektu" hauek, edonor osaketa subjektibo batean sartu dela erakusteaz batera, errenuntzia-kontsidero guztiak alferreko bihurtzen dituzte. Experientziak hamaika aldiz erakutsi du hori.

Baina etika ez da atzitze soilaren alorrekoa. Kontsistentzia subjektiboa arautu egiten du, bere ikurra hauxe delarik: "Jarraitu!". Nolanahi ere, ikusi dugu jada jarraitze horrek "izatean irautearen" benetako desbideraketa dakarrela. Gure izaki-anitzaren materialak eraketa subjektiborako, fideltasun batekiko fideltasunerako daude xedatuta, eta ez gure interesaren jarraipen hutserako. Merezi al du desbideraketa horrek errenuntzia?

Badago hor, ezin uka, propioki *erabakiezina* den puntu bat. "Erabakiezinak" esan nahi du inongo kalkuluak ez duela funtsezko errenuntziarik dagoen ala ez erabakitzea baimentzen.

— Alde batetik, benetakoa da egien etikak iritziekin mantentzen duen urruntasunak propioki *asozial* egiten gaituela. Asozialtasun hori betidanik da ezaguna: zeruko mugimenduen sekretua

aurkitu nahian zebilela putzu batean jausi zen Talesen irudia dugu, "Maitaleak bakarrik daude munduan" atsotitza, militante iraultzaile handien patu banatua, "jeinuaren bakardadearen" gaia, e.a. Maila baxuenean, "intelektualaren" kontrako sarkasmo garaikidea, edo militanteari eransten zaion "dogmatiko" edo "terrorista" moduko errepresentazio ekidinezina. Izan ere, asozialtasuna interesen jarraipenaren murrizketa etengabe batez ordaintzen da, hain zuzen ere jarraipen hori joko sozialak eta komunikazioak arautzen dutelako. Ez da, kasu honetan, hainbeste errepresio-kontua (nahiz eta, noski, existitzen den, eta era oso muturrekoa izan dezakeen), gertakizunaren osteko fideltasuna eta gauzen joera arruntaren artean,— *egia* eta *jakintza*ren artean— propioki ontologikoa[13] den diskordantzia gaindiezin batena baizik.

— Bestetik, onartu beharra dago eraketa subjektiboan engaiaturiko "ni-neua" eta bere interesari jarraitzen dion bestea *identikoak* direla: ez dago, guretzat, "edonor" delakoaren bi irudi desberdin. Anitz bizidun berberak dira kasu guztietan errekerituak direnak. Nire osaketa-anitzaren baliobitasun horrek, interesa, interes-gabeko-interesetik argiro eta desberdinki ezin errepresentatzea eragiten du. Neure buruaren edozein errepresentazio, osagai anitz infinituak dituen batasun baten inposaketa fiktizioa da. Ez dago zalantzarik, fikzio honek, oinarriak interesean dituela orohar. Baina osagaiak anbiguoak diren bezala (horiek dira baita ere nire presentzia fideltasun bati lotzeko balio dutenak), gerta daiteke, interesaren arauaren pean ere, batasun fiktizioa, den bezala, subjekturantz bideratuta egotea; Hilezinerantz, eta ez sozializaturiko animaliarantz.

Sakonean, egien etikak inongo aszetismorik behar ez izatea, interesaren eskemak fiktizioki batzeko, egien etikari kontsistentzia ematen dion materia, edukitzearen arabera dago, eta ez besterik. Hortik dator, interes-gabeko-interesa interes soil bezala errepresentatzeko posibilitatea. Hori gertatzen denean, ezin dugu aszetismoaz hitz egin: interesaren printzipioak zuzentzen du benetan praktika kontzientea.

Baina posibilitate bat baino ez da kasu honetan, eta inola ere ez, behar bat. Ez dezagun ahantz, praktikan, oso urrun dagoela nire izaki-anitzaren osagai *guztiak* multzoan engaiatzeko aukera, interesen jarraipenerako nahiz egia-subjektu baten kontsistentziarako. Beti gerta daiteke, beraz, "lotan egon den" osagai bat edo besteren errekerimendu zakarrak, bai interesen presio sozializatuaren pean, bai martxan dagoen fideltasunaren etaparen alde, neure buruaren errepresentazioa antolatzeko aldez aurretik erabiltzen nituen muntaia fiktizio guztiak desegonkortzea. Une horretatik aurrera, interes-gabeko-interesa interes soil gisa pertzibitzea bertan behera desegin daiteke, hausdura errepresentagarri bihur daiteke, eta aszetismoa eguneroko arazo bilakatu, ala guztiz kontrakoa ere gerta daiteke: amore emateko tentazioa, eraketa subjektibotik erretiratzekoa, desio obszeno bat nagusitzen delako maitasun bat apurtzekoa, "ondasunen zerbitzuaren" atsedena eskaintzen zaigulako politika bat traizionatzekoa, fermutasun zientifikoa kreditu eta ohoreen lasterketagatik ordezkatzekoa, edo abangoardien izaera "gainditua" salatzen duen propaganda baten estalpean akademizismora itzultzeko tentazioa.

Baina orduan, aszetismoaren etorrera eta egia-subjektua *norberarekiko desio* soila bailitzan aurkitzea identikoak dira. Subjektuak, nolabait, bere indar propioez baliaturik segitu behar du, fikzio errepresentagarriaren anbiguotasunaren ordurarteko babesetik kanpo. Hauxe da erabakiezinaren puntu propioa: bere kontsistentzian irauteko subjektuak duen desioa, eta animaliak bere aukera sozialdua harrapatzeko duen desioa konparagarriak ote dira? Puntu honetara helduta, ezerk ez digu kuraia aurreratzen. Ahal badugu, Lacanek hau idatzi zuenean zeukan optimismoaz armatuko gara: "Desioa, desioa deitzen dena [Lacan ezjakin subjektiboaz mintzo da hemen] nahikoa da bizitzan koldarra izateak zentzurik ez izateko[14]".

* *événement*, jatorrizko testuan .

10 Alain Badiou, *L'être et l'événement*, Seuil, 1988. Gertakizunaren teoriak, praktikan exijitzen dituen itzulinguru kontzeptual luzeak liburu honetan garatzen dira.

11 Jürgen Habermas, *Théorie de l'agir communicationnel*, Fayard, 1987. Habermas "arrazionaltasun" demokratikoa hedatzen saiatu da, komunikazioa bere antropologiaren oinarrietan bertan integratuz. Ikuspuntu horretatik, Lévinasen jarreraren kontrako beste ertz batetik, korronte "etikoaren" azpiegitura filosofikoa dei genezakeen horretan hartzen du parte.

12 Alain Badiou, *Théorie du sujet*, Seuil, 1982. Liburu honek, bere azken "ikasgaietan", subjektuaren etikari buruzko garapenak dauzka, hori bai, hemen aurkitzen denarekin konparaturik apur bat desberdin orientaturik.

13 Alain Badiou, *L'être et l'événement*, op. cit. Iritziak kontutan hartzen duen elementua beti dago multzo *eraikigarri* batean (sailkapenek atzitu dezaketela) integraturik. Egia-prozesu batetik begiratuta, berriz, elementu berberori, multzo *generiko* batean (orohar: ezarritako sailkapen guztiei ihes eginez) legoke integraturik.

14 Jacques Lacan, *Écrits*, Seuil, 782 orr.

V GAIZKIAREN ARAZOA

Azpimarratu dugu jadanik ideologia etiko garaikidea zein puntutaraino sustraitzen den gaizkiaren ebidentzia kontsentsuatuan. Guk irizpen horri buelta eman diogu, bai subjektu baten osaketa posibleari dagokionean, bai eraketa horretan sar daitekeen "edonor" delakoari dagokionean ere, egien prozesu baiezkoa etika *iraunarazle* baten etorrera singularraren erdigunean kokatuz.

Gaizkiaren nozioari balio guztia kendu behar zaiola eta, besterik gabe, bere jatorri erlijiosora birbidali behar dugula esan nahi ote du honek?

A/ Bizitza, egiak, Ongia

Ez diogu hemen inolako kontzesiorik egingo, Gizakiari kalte egiten dion zerbaiten ebidentzian oinarrituko litzatekeen "berezko zuzenbide" antzeko zerbait legokeelako iritziari.

Natura soilari dagokionean, giza animalia bere kide biologikoen maila berean kokatu behar dugu. Sarraskigile sistematiko horrek, berak eraikitako inurritegi erraldoi horietan, kikindera eta satorrenak bezain estimagarriak diren biziraupen- eta asetasun-interesei segitzen die. Animalien artean bihurrien agertzen da, pazienteen, bere boterearen desio ankerrei setatien makurtuena. Batez ere, bere bizitza hilkorraren zerbitzura, berea den ahalmen propioa ipintzen jakin du: hots, bere burua egien trajektuan ipini, horrela Hilezinaren parte bat bilakatzen delarik. Hauxe da jadanik Platonek ulertarazi nahi izan zuena: haitzulotik ihesi joanda Ideiaren eguzkiak txunditutako presoaren betebeharra, gerizpetara itzuli, eta

mundu ilunaren atarian bera atzitu zuen horretaz bere gatibukideak profitaraztea zela. Gaur neur dezakegu benetan itzulera horren esanahia: fisika galilearraren makineria teknikoranzko itzulera, edo teoria atomikoaren lehergailu eta zentral atomikoetaranzko itzulera. Interes-gabeko-interesaren interes soilerako itzulera, egia batzuk jakintzari egindako bortxaketa. Guzti horrekin amaitzean, giza animalia bere biotopoaren —hau, esan beharra dago, bigarren mailako planeta bat baino ez da— jaun eta jabe bilakatu da.

Horrela pentsatuta (eta hori da berataz dakigu-na), argi dago giza animalia "berez" ez datorrela inolako balio-irizpenetik. Nietzschek dudarik gabeko arrazoia dauka, humanitatea bere bizi-indarraren arabera mugatzen duenean, berez Ongia eta Gaizkiarekiko arrotz, eta funtsean errugabetzat jotzen duenean. Haren kimera, Apaizaren irudi indartsuak bultzaturiko bizitzaren suntsiketa-projektu bildurgarritik libratu ondoren, errugabetasunera itzuli den super-humanitatea imajinatzean datza. Ez!, inongo bizitza, inongo indar naturalik, ezin da Ongitik edo Gaizkitik harantzago egon[15]. Esan behar dena da, edozein bizitza, giza animaliarena barne, Ongitik eta Gaizkitik honantzago dagoela.

Ongia sortarazten duenak, eta ondorio soil bezala Gaizkia, egia-prozesuen existentzia pitxia ukitzen du exklusiboki. Hausketa inmanente batek zeharkatuta, giza animaliak bere biziraupen-printzipioa —bere interesa— desantolatuta ikusten du. Esan dezagun orduan Ongia, Ongia bezala edonor egia-prozesu batean sartzeko aukera ulertzen badugu, bizitzaren desantolaketa luze baten barne-araua dela.

Bestalde, gauza jakina da biziraupenaren errutinak berdin zaizkiola edozein Ongiri. Interesaren edozein jarraipen soilik da zilegi lorpenaren arabera. Aldiz, ni "maitasunaren sarean erori" banaiz ("erori" hitzak gauzen joera arruntaren desantolaketa erakusten du), edo pentsamendu baten sumindura logabeak atzituta banauka, edo konpromezu politiko erradikal bat berehalako interesaren printzipioarekin bateraezina dela ikusten badut, orduan nire bizitza, animalia sozialdu modura dudan bizitza, bera ez den beste gauza batekin neurtzera behartuta egongo naiz. Eta bereziki, ebidentzia zoriontsutik edo atziketaren entusiasmotik harantzago, arazoa da bizi-desantolaketari segituko diodan ala ez, eta nola, jakitea; horrela eginez gero, desantolaketa premiazkoa bigarren erakunde paradoxiko batez —"kontsistentzia etikoa" izendatu dugunaz— hornituko nuke.

Gaizkia baldin badago, beharrezkoa da Ongiaren arabera pentsatua izatea. Ongia eta egiak kontutan izan gabe, bizitzaren errugabetasun krudela baino ez dago, eta hau Ongitik *eta Gaizkitik* honantzago dago.

Beraz, asmoa bitxia izan arren, guztiz beharrezkoa da Gaizkia egien dimentsio posible bat izatea. Ez gara, puntu honetan, Platonek emandako soluzio errazegiaz konformatuko: hots, Gaizkia egiaren ausentzia soil moduan, edo Gaizkia Ongiaren ezjakintasun gisa ulertuz. Ezjakintasunaren ideia bera sumaezina delako. Norentzat dago egia bat ausente? Giza animaliarentzat, den bezala bere interesen jarraiketan ahalegintzen den horrentzat, ez dago egiarik, soilik iritziak, hauen bitartez sozialtzen delarik. Subjektuaz —Hilezinaz— ari

bagara, berriz, egia ezin zaio inoiz falta, zeren beraz, eta soilik beraz —trajektu fidel gisa ulertua— osatzen baita.

Nolanahi ere, Gaizkia izaki-anitzaren forma baten modura identifikagarria baldin bada, orduan beharrezkoa da, *Ongiaren beraren efektu (posible)* bezala sortzea. Horrela ere formula daiteke: Gaizkia soilik existitzen da egiak dauden neurrian, eta egia horien subjektuak dauden neurrian.

Areago oraindik: Gaizkia, existitzen baldin bada, egiaren potentziaren efektu ezarautu bat da.

Baina Gaizkia existitzen ote da?

B/ Gaizkiaren existentziaz

Gaizkiaren kontsentsu-ezagutza —*a priori* egindakoa— errefusatzen dugun moduan, pentsamendu-lerro zehatz bakarra Gaizkia gure esparruan definitzea litzateke, egia-prozesu baten dimentsio posible bat bailitzan; eta soilik ondoren, definizio honetatik itxarotako efektuak, eta Gaizki historiko edo pribatuaren adibide "bistakoen" arteko kointzidentziak aztertu.

Hala ere, modu induktiboagoz jokatuko dugu oraingoan, liburu honen xedea arazoen gaurkotasuna hurbiletik tinkatzea baita.

Ideologia etikoaren mantentzaileek ongi dakite Gaizkiaren identifikazioa ez dela arazo makala, nahiz eta, azken finean, horren eraiketa osoa, gai honi buruzko iritziaren ebidentzia dagoelakoan oinarritzen den. Hortik aurrera, Lévinasek "bestearen ezagutzarako" egiten duen bezala jokatzen dute: arazoa erradikalizatuz. Lévinasek Bestearenganako irekieraren originaltasuna Guztiz-Bestearen ustearen arabera egiten duen bezala, modu berean etikaren mantentzaileek Gaizkiaren kon-

tsentsuaren bitarteko identifikazioa, Gaizki *erradikal* baten ustearen arabera egiten dute.

Gaizki erradikalaren ideia (gutxienez) Kantengandik datorren arren, beraren bertsio garaikidea "adibide" batetan sostengatzen da behin eta berriz: naziek Europako juduekin egindako sarraskia. Ez dugu "adibide" hitza edonola erabiltzen. Adibidea, erabilera arruntean, errepikatu edo imitatu behar den zerbait da. Sarraski nazia aipatzen denean, honek Gaizki erradikala adierazten du, eta beraren errepikapena eta imitazioa ekidin egin behar dira, kosta ahala kosta. Are zehatzago: haren ez-errepikapena egoerak aztertzeko arau bilakatu da. Hona hemen, beraz, krimenaren "adibidetasuna", adibidetasun negatiboa. Baina adibidearen funtzio arauemaileak hor dirau: sarraski nazia Gaizki erradikala da, gure garaiari Gaizki soilaren neurri bakarra —berdingaitza, eta zentzu horretan transzendentea, edo esangaitza—, ematen dion heinean. Lévinasen Jainkoak bestetasunaren ebaluaketan betetzen duen papera (Guztiz-Bestea, Bestearen neurri neurtezin modura), sarraskiak betetzen du egoera historikoen ebaluaketan (Guztiz-Gaizkia, Gaizkiaren neurri neurtezin modura).

Horrexegatik sarraskia eta naziak aldi berean pentsagaitz, esangaitz, aurrekin eta etorkizun pentsagarririk gabe agertzen dira —Gaizkiaren era absolutua izendatzen dutelako—; eta, halere, behin eta berriz aipatuak, parekatuak dira, iritzian Gaizkiaren kontzientzi efektua sortu nahi deneko edozein zirkunstantzia eskematizatu nahi denean —ez baitago Gaizki orokorra irekitzerik, Gaizki erradikalaren baldintza historikoaren pean egiten ez bada. Horrela bada, 1956an, indar anglo-frantsesek Egipto inbaditu zutela justifikatzeko, politikariek eta prentsak ez zuten segundu bakar bateko zalantzarik izan formula honen aurrean: "Nasser Hitler da". Oraintsuago ere ikusi ahal izan dugu hori, bai Saddam Husseini egokituta (Iraken), zein Slobodan Milosevici (Serbian). Baina aldi berean, etengabeki gogorarazten zaigu sarraskia eta naziak bakarrak direla, eta edozerekin konparatzea profanazioa dela.

Paradoxa hau, egia esan, Gaizki erradikalarena berbera da (eta, baita ere, edozein errealitate edo kontzepturen "transzendentalizazioarena" ere bai). Behar beharrezkoa da neurria ematen duena neurtezina izatea, eta halere behin eta berriro neurtua izatea. Sarraskia da, aldi berean, gure garaiak Gaizkia egiteko duen ahalmen guztiaren neurria, bera neurritik kanpo geratzen delarik, eta baita ere, behin eta berriro neurtuz, Gaizkiaren ebidentziaren arabera epaitu behar den edozerekin konparatu behar dena. Krimen hori, adibide negatibo gorena den aldetik, imitaezina da, baina, baita ere, edozein krimen beraren imitazioa da.

Gaizkia iritziaren kontsentsu-irizpen bat izatera (Gaizki erradikal bat suposatuz aurre-egituratu behar den irizpena) mugatu nahi izateak kondenatzen gaituen zirkulu horretatik irteteko, nabariki beharrezkoa da Gaizki absolutuaren gaia eta neurri gabeko neurria abandonatzea. Gai hori, Guztiz-Bestearena bezalaxe, erlijioaren arlokoa da.

Nolanahi ere, gauza nabarmena da Europako juduen sarraskia estatu-krimen basatia izan zela, eta sortarazten duen izua hain da handia ezin dela zalantzan jarri, sofistika nazkagarri batean sartu gabe, edonondik begiratuta ere, hura Gaizki bat

izan zela, eta hari dagokiola, ez dagoela ezer, zerbait adieraztea edo higidura historikoaren behar iragankorren kapituluan lasaiki ("modu hegeliarrean") sailkatzea permititzen duenik.

Gauza onartua da, baita ere, duda izpirik gabe, sarraskiaren singularitatea. "Totalitarismoaren" kategoria kaxkarra, politika nazia eta Stalinen politika, Europako juduen sarraskia eta Siberiako deportazioak eta sakailak kontzeptu bakar baten barruan biltzeko izan da prestatua. Amalgama horrek ez dio pentsamenduari ezertan laguntzen, ez eta Gaizkia pentsatzeari ere. Sarraskiaren murriztezintasuna onartu beharra dago (eta baita ere, partidu-estatu stalindarraren murriztezintasuna).

Baina, hain justu, arazoa singularitasun hori kokatzean datza. Giza eskubideen mantentzaileek, zuzenean Gaizkian kokatzen saiatzen dira, iritzi hutsezkoak diren beren xedeei jarraikiz. Ikusi dugu jadanik Gaizkia erlijiosoki absolutizatzeko saioa inkoherentea dela. Gainera, oso arriskutsua da, pentsamenduari "muga" zeharkaezina jartzen dion edozer bezala. Zeren imitaezinaren errealitatea etengabeko imitazioa baita, eta alde guztietatik Hitlerrak ikusiaren ikusiaz, ahaztu egiten da hura hilda dagoela, eta gure begien aurrean gertatzen denak, Gaizkiaren singularitasun berriak ekartzen dituela.

Izatez, sarraskiaren singularitasuna pentsatu ahal izateko, lehenbizi, nazismoak politika moduan duen singularitasuna pentsatu behar da. Hor dago koska. Lehenago boterea hartu zuelakor eraman ahal izan zuen Hitlerek sarraskia operazio erraldoi militarizatu gisa; eta boterea politika baten izenean hartu zuen, politika horren kategorien artean "judua" agertzen zelarik.

Ideologia etikoaren mantentzaileek hain fermuki eusten diote sarraskiaren singularitasuna zuzenki Gaizkian kokatzeari, ezen, sarrien, nazismoa politika bat izan dela kategorikoki ukatzera iristen diren. Baina hau, aldi berean posizio ahula eta adorerik gabea da. Ahula, zeren, "judu" izenaren eraiketa eskema politiko gisa integratuz, nazismoa subjektibotasun "trinko" gisa osatzea izan baita sarraskia posible eta, gero, beharrezko egin duena. Adorerik gabea, ezinezkoa baita politika azken muturreraino pentsatu ahal izatea, bere kategoria organikoak, preskripzio subjektiboak, kriminalak eduki ditzaketen politikak egon daitezkeela kontsideratzera errenuntziatzen bada. "Giza eskubideen demokraziaren" aldekoek oso atsegin dute, Hannah Arendtekin batera, politika "elkar-izatearen" eszena bezala definitzea. Hain zuzen ere, definizio horretan trabatzen dira nazismoaren funts politikoaz aritzerakoan. Baina definizio hori maitagarri-ipuina baino ez da. Are gehiago, "elkar-izateak", darabilen multzoa mugatu behar du lehenbizi, eta hori da arazoa. Inork ez zuen nahi alemaniarren "elkar-izatea" Hitler-ek bezainbesteko gogoz. Naziek erabilitako "judu" kategoriak barnetasun alemaniarra, "elkar-izatearen" espazioa izendatzeko balio zuen, barnean jazar zitekeen kanpotasuna (arbitrarioa baina aginte modukoa) eraikiz; era berean, "frantsesen artean" egotearen segurtasunak, hemen bertan "etorkin klandestino" kategoriaren pean sartzen direnak jazartzea ekartzen du.

Politika naziaren singularitasunetatik bat, *subjektibotasun* konkistatzaileaz hornitu behar zen "komunitate" historikoa zehazki aldarrikatzea izan zen. Eta aldarrikapen hori izan zen garaipen

subjektiboa permititu zuena eta sarraskia egunerokotasunean sartu zuena.

Egokiagoa litzateke esatea, arazo honetan, politika eta Gaizkiaren arteko lokarria, hain zuzen ere, multzoa kontutan izatearen (komunitateen arazoa) zein batera-izatearen (kontsentsu eta konpartituriko arauen gaia) banaketatik sortzen dela.

Baina benetan garrantzitsua hauxe da, alegia, Gaizkiaren singulartasuna, azken batean, politika baten singulartasunaren menpe dagoela.

Honek, Gaizkiaren menpekotasunaren pentsamendura birgaramatza, Ongiarekiko menpekotasun zuzena ez bada, behintzat bere ildokotzat erreibindikatzen diren prozesuekikoa. Daitekeena da politika nazia egia-prozesu bat ez izatea. Baina soilik horrela errepresentatua izan zen heinean *jabetu* zen egoera alemaniarraz. Gauzak horrela, Gaizki honen kasuan ere, guk erradikala deituko ez duguna baizik eta demasa, bere izate "subjektiboaren" ulergarritasunak, bere exekuzio izugarrian —betebeharra bailitzan— parte hartu zuten "edonor" haien arazoak, egia-politikoaren prozesuaren barrutiko dimentsioetara jotzea eskatzen dute.

Azpimarra zitekeen baita ere, modu bertsuan, sofrikari subjketiborik latzenak, "norbaiti kalte egitea" benetan adierazten dutenak, sarritan suizidiora zein erahilketara eraman gaitzaketenak, maitasun-prozesu baten existentzia izaten dutela horizontetzat.

Orohar, hauxe manten dezakegu:

— Gaizkia existitu egiten dela;

— giza animaliak bere izatean irauteko, bere interesei jarraitzeko, erabiltzen duen bortizkeriatik bereiztu behar dela, bortizkeria hau Ongitik eta Gaizkitik honantzago dagoela;

— nolanahi ere, aipatu bereizketa argitu zezakeen Gaizki erradikalik ez dagoela;

— ezin dela Gaizkia, hondakatze arruntetik bereizturik pentsatu, Ongiaren ikuspuntutik ez baldin bada, alegia, egia-prozesu batek "edonor" delako baten atzitzetik ez bada;

— Gaizkia soilik existitzen dela, gizakia, den Hilezina bihurtzeko gauza den neurrian;

— egien etika, fideltasun batekiko fideltasunaren kontsistentziaren printzipio gisa, edo "Jarraitu!" delako ikurra, egia singular orok posible egiten duen Gaizkia gelditzen saiatzen da.

Tesi hauek elkarrekin lotzea, eta egien forma orokorrari buruz dakigunaz homogeneo bihurtzea baino ez da falta.

C/ Gertakizuneranzko itzulera, fidelitatea, egia

Gogora ditzagun egia-prozesu baten hiru dimentsio nagusiak; hauexek dira:

— egoera, iritziak edo ezarritako jakintzak ez diren "beste zerbait" etorrarazten duen *gertakizuna*; hau gehigarri azarosoa, ustegabekoa da, agertu bezain pronto desagertzen delarik;

— prozesuaren izena den *fideltasuna*: egoeraren ikerketa etengabea da, gertakizunaren beraren agindupean egindakoa; hausketa etengabe eta inmanentea da;

— *egia* bera da, fideltasunak pixkanaka eraikitzen duen egoeraren barneko anitz hori; fideltasunak bildu eta ekoizten dituena da;

Prozesuaren hiru dimentsiook funtsezko ezaugarri "ontologikoak" dituzte:

1) Gertakizuna, aldi berean *kokatua* —egoera zehatz bateko gertakizuna da— eta *gehigarria* da; beraz, egoeraren arau guztietatik banatuta eta

deslotuta dago. Horrela bada, Haydnekin (edo Haydn delako "edonor" horren izenpean) sortutako estilo klasikoa, egoera musikalari doakio, estilo barrokoaren menpe zegoen egoerari, eta ez bestelako egoerari. Egoera horretarako gertakizuna da. Baina, beste alde batetik ikusita, gertakizun horrek posible egiten dituen itxuraketa musikalak ez dira irakurgarriak estilo barrokoak lorturiko betetasunean, benetan *beste zerbait* da.

Galde dezakegu orduan zerk lotzen dituen gertakizuna eta hura, "zeinarentzat" gertakizuna gertakizun den. Lotura hori *aurreko egoeraren hutsunea da*. Zer esan nahi du horrek? Bada, egoera ororen muinean, bere izatearen funts moduan, hutsune "kokatu" bat dagoela, bere inguruan, aipaturiko egoeraren betetasuna (edo anitz egonkorrak) antolatzen delarik. Gauzak horrela izanik, bere asetasun birtuosora iritsitako estilo barrokoaren muinean, musikaren arkitekturari zegokion egiazko pentsamendu baten hutsunea zegoen (oharkabea, erabakiorra zen heinean). Haydn-gertakizuna, hutsune horren "izendapen" musikal moduko zerbaiten antzera gertatu zen. Zeren gertakizuna bera, guztiz berria zen printzipio arkitektonikoak, gaiei buruzkoak, zelula aldagarri batzuetan oinarritutako idazkera garatzeko modu berriak osatu baitzuten. Hain zuzen ere, estilo barrokoaren barrutik hautemangarria ez zen gauza (ezin zen horretaz ezer jakin).

Egoera bere barruan zirkulatzen duten jakintzek osatzen dutelarik, gertakizunak hutsunea izendatzen du, egoeran *ez-jakina* dena izendatzen duen heinean.

Adibide oso ezaguna erabiliz, Marx pentsamendu politikoaren gertakizun bilakatu zen, proletargo

izenarekin, jaiotzen zeuden gizarte burgesen hutsune zentrala izendatu zuenean. Zeren, kapitalen jabeen erresumaren betetasun asea, ondasunez guztiz gabeturik eta eszena politikotik ausente zegoen proletargoaren inguruan antolatzen zen.

Azkenik, gertakizunaren izaera ontologiko oinarrizkoa, haren, "zeinarentzat" gertakizuna gertakizun den, hutsune kokatua inskribatzean eta izendatzean datza.

2) Fideltasunaz aritu bagara, nahikoa esan dugu hitz honek esan nahi duenaz. Punturik inportanteena hauxe da, alegia, ez dela sekula beharrezkoa. Erabakiezintasuna dago, fideltasunean parte hartzen duen "edonori", hark dakarkion interes-gabeko-interesa, interes soil bezala balio diezaiokeena —nahiz eta bere buruaren errepresentazioaren fikzioan gertatu— jakiteko orduan. Eta, beraz, iraunkortasunaren printzipio bakarra interesarena denez, fideltasun batekiko norbaitek izan dezakeen iraunkortasunak —giza animalia bat izaki-subjektu izatearen jarraipena— aleatorioa segitzen du izaten. Gauza jakina da, egien etika batentzako tokia dagoela, hain zuzen, aleatorio hori hor dagoelako.

3) Egia emaitza modura aztertzen badugu, berriz, beharrezkoa da batez ere bere potentzia azpimarratzea. Ukitu dugu jada gai hau, Platonen gatibuaren haitzulorako "itzulera" aipatu dugunean, zeina egia batek jakintzetara egiten duen itzulera den. Egia batek jakintzak "zulatu" egiten ditu, hauekiko heterogeneoa da, baina baita ere, jakintza berrien iturri ezagun bakarra da. Egiak jakintzak *bortxatu* egiten dituela esango dugu. *Bortxatu* aditzak hauxe adierazten du: egia baten potentzia hausketa batena izanik, ezarrita

dauden eta zirkulatzen duten jakintzak bortxatuz da egia batek egoeraren berehalakotasunerako itzulera egiten duen modua, edo iritziak, komunikazioak eta sozialtasunak edaten duten entziklopedia mugikor antzekoa aldarazten duen era. Egia bat berez inoiz komunikagarria ez bada, horrek, bertatik urrun, komunikazioaren forma eta erreferenteen aldarazketa indartsuak dakartza; nahiz eta, dena dela, aldarazketa horiek ez duten egiarik "adierazten", ez eta iritzien "aurrerapenik" ere. Horrela antolatzen da, lasterka, estilo klasikoaren izen handietan oinarrituta, *jakintza* musikala, aurretik formulaezina zen jakintza. Ez dago hor inolako "progresurik", zeren akademizismo klasikoa, edo Mozarten gurtzapena, ez dira aurretik zegoenarekin konparatuz, maila goragokoak. Baina badago jakintza-bortxaketa bat, sarritan oso hedatuta dauden komunikazio-kodeen (edo giza animaliek "musikaz" elkartrukatzen dituzten iritzien) aldaketa bat. Hain zuzen ere, iritzi aldatu horiek hilkorrak diren bitartean, egiek, estilo klasikoaren sorketa-lan handiek, eternalki irauten dute.

Era berean, asmakizun matematikoen patua ere, azkenean, eskuliburu unibertsitarioetan amaitzea da, alegia, Eskola Handietako sarrera-proben bitartez gure "gidarien elitea" erreklutatzeko. Egia matematikoek sortutako eternitateak ezin du hori ekidin, ez bada sozialtasunaren beharretarako premiazkoak ziren jakintzak bortxatu dituelako, giza animalien interesetara itzultzeko bere modua hori delako.

Gaizkiaren pentsamendua, egia-prozesuaren hiru dimentsio hauen araberakoa da: gertakizunak egoera batetako *hutsuneari* egiten dion deialdia;

fideltasunaren ziurgabetasuna; egia batek jakintzei egiten dien *bortxaketaren* potentzia.

Zeren Gaizkiak hiru izen baititu:

— gertakizun batek ez duela aurreko egoerako hutsunea —baizik eta betea— konbokatzen imajinatzea, *simulakro* edo *terrore* gisako Gaizkia da;

— fideltasun baten uzketa, garen Hilezinari egiten diogun berezko *traizioa* da;

— egia bat potentzia total batekin identifikatzea, *desastre* moduko Gaizkia da.

Egien etika da —eta ez giza eskubideen ezintasun morala— terrorea, traizioa eta desastrearen aurka egiten saiatzen dena, ibili dabilen egia baten gaineko euskarri singularretik abiatuta. Baina, ikusiko dugun bezala, egia baten prozesuak berak gaurkotzen dituen baliabideak dira. Eta, beraz, nahiko nabarmen geratzen da, Gaizkia Ongitik datorren bitartean dagoela soilik.

D/ Gaizkiaren teoria baten zirriborroa

1. *Simulakroa eta terrorea*

Ikusi dugu jadanik "berritasun" guztiak ez direla gertakizun. Beharrezkoa da oraindik gertakizunak konbokatu eta izendatu duena, gertakizun hori gertakizuna den egoeraren hutsune nagusia izatea. Izendapenaren arazo hau funtsezkoa da, baina ezin dut hemen osorik bilakatu[16]. Hala eta guztiz ere, erraz uler daiteke gertakizunaren funtsa —egoerara datorren gehigarri bat-batekoa delako— desagertzea izanik, egoeran gordetzen den berea, eta fideltasunaren gida modura balio duena, desagerturiko gertakizuna gogora ekartzen duen zantzu antzeko zerbait edo izen bat dela.

Naziek "iraultza nazional-sozialistaz" hitz egiten zutenean, gertakizun politiko moderno han-

dietan (1792ko Iraultza, edo 1917ko Iraultza boltxebikea) baieztaturiko izendapena —"iraultza", "sozialismoa"— maileguan hartzen zuten. Mailegu horrekin erlazionaturiko eta berak legitimaturiko hainbat ezaugarri daude: ordena zaharrarekiko hausketa, bilera masiboen sostenguaren bilaketa, estatuaren estilo diktatoriala, erabakiaren *patua*, Langilearen apologia, e.a.

Horrela izendaturiko "gertakizunak", alabaina, puntu askotan izena eta zantzua hartu dizkien haien antzekoa formalki, eta haiek gabe ez diskurtso propiorik ez eta hizkuntza politiko osaturik izango ez lukeenak, osotasunaren edo substantziaren lexikoa du ezaugarritzat: iraultza nazional-sozialistak —zioten naziek— komunitate berezi bat, herri alemana, bere egiazko patura, hots, menderaketa unibertsalaren patura ekarri du. Gauzak horrela, gertakizunak, ez aurreko egoerako hutsunea baizik eta betea etorrarazi eta izendatu zuela suposatzen zuten; ez, hain zuzen ere, inongo aspektu partikularretan sostengatzen ez den unibertsaltasuna, baizik eta lurraren, odolaren eta arrazaren zantzuetan sustraiturik dagoen komunitate baten partikulartasun absolutua.

Egiazko gertakizun bat egia baten —guztiontzako den gauza bakarra—jatorrian egon ahal izatea, eta eternala izatea baimentzen duna, egoera baten partikulartasunera lotuta ez egotea da, bere hutsunearen aldetik ez bada. Hutsuneak, deusaren-anitzak, ez du inor baztertzen ez eta behartzen. Izakiaren neutraltasun absolutua da. Horrela bada, fideltasun baten jatorria den gertakizuna, egoera singular baten hausketa inmanentea izan arren, ez da gutxiago bere hedadura unibertsala.

Naziek 1933an boterea hartutakoan eragindako hausketa atxikitzailea, ordea, iraultza "aleman" bezala pentsatua zelako, eta herri baten balizko substantzia nazionalari baino ez zitzaiolako fidela, formalki gertakizun batekiko bereiztezina izanik —hori bera da Heidegger[17] huts eginarazi zuena— soilik zuzendu zen benetan berak "Aleman" bezala mugatu zituenengana. Gertakizunaren izendapenetik bertatik beraz, eta "iraultza" delako izendapenak benetako gertakizun unibertsalen baldintzapean (1792 eta 1917ko Iraultzak adibidez) baino funtzionatzen ez duelarik, erabat ezgaia zen edozein egia sortzeko.

Egia-prozesu errealetatik mailegatutako izenen pean, egoeran izandako hausketa erradikal batek, hutsaren ordez, egoera horretako partikulartasun "betea", edo balizko substantzia konbokatzen dituenean, orduan, *egiaren simulakro* baten aurrean gaudela esango dugu.

"Simulakroa" zentzu gogorrean hartu behar dugu: egia baten ezaugarri formal guztiak aurkitzen ditugu simulakroan. Ez bakarrik hausketa erradikal baten indarra dakarren gertakizunaren izendapen unibertsala, baita ere "fideltasunaren" betekizuna, eta substantzia komunitarioaren barnekoak ez direla, arbitrarioki aldarrikatuak izan diren besteen giza animaltasunaren gainetik eraikitako subjektu-simulakro baten sustapena, gertakizunaren simulakroak substantzia horren eragintza eta nagusitasuna ziurtatzen duelarik.

Simulakro batekiko fideltasunak, gertakizunarenganako fideltasunak ez bezala, multzo abstraktu baten partikulartasun itxian ("Alemanak" edo "Arioak") arautzen du bere hausketa, eta ez hutsunearen unibertsaltasunean. Bere ariketa

etengabea eta ekidinezina multzo hori eraikitzea da, eta hori egiteko ez dago beste biderik bere inguruan "hutsunea egitea" baino. "Gertakizun-substantzia" baten simulakro moduko sustapenean harrapatuta, hutsunea itzuli egiten da, bere unibertsaltasunarekin, substantzia gauza dadin egin behar den zerbait bailitzan. Horrela ere esan daiteke: "guztioi" zuzenduta dagoena (eta "guztiak" hemen, halabeharrez, ez da alemanen substantzia komunitarioa, hau ez baita "guztiak", "guztiak" menperatzen dituen "batzuk" baizik) heriotza da, edo heriotz mota berandutua den substantzia alemanaren zerbitzurako esklabutza.

Horrela bada, simulakro batekiko fideltasunak (eta honek substantzia alemanekoak diren "batzuk" horiei sakrifizio eta engaiamendu luzeak eskatzen dizkie, benetako fideltasun baten forma duelako) gerra eta sarraskia ditu edukitzat. Eta hauek ez dira soilik bitartekoak: horrelako fideltasun baten erreal osoa eratzen dute.

Nazismoaren kasuan, hutsuneak izen pribilegiatu baten gainean egin zuen itzulera: "judua". Egia esan, bazeuden beste batzuk ere: ijitoak, buru-gaixoak, homosexualak, komunistak... Baina "judua", izenen izena izan zen —balizko substantzia alemanaren inguruan eta "iraultza nazional-sozialista" simulakroak bultzatuta—, bere desagerpenarekin substantzia identifikatzeko hutsune nahikoa izendatzeko balio izan zuena. Izen horren aukerak unibertsaltasunarekin —bereziki unibertsaltasun irautzailearekin— duen lotura nabarmenera garamatza, laburki, izen horrek jadanik zeukan *hutsera*, alegia, *unibertsaltasunarekin eta egien eternitatearekin lotuta* zeukan horretara. Hala ere, sarraskia antolatzeko erabilia

izan zen neurrian, "judua" izena nazien asmakizun politikoa izan zen, eta ez dauka aldez aurretiko erreferenterik. Erabilera hori naziekin inork konpartitu ezin duen izen horrek, simulakroa eta simulakroarekiko fideltasuna dakartza —nazismoak politika gisa duen singulartasun absolutua beraz.

Baina puntu honetan bertan ere, onartu egin behar da politika honek egia-prozesu bat imitatzen duela. Benetako gertakizun batekiko fideltasun orok bere iraunkortasunaren kontrakoak izendatzen ditu. Hausketa ekidin nahi duen kontsentsuaren etikak ez bezala, egien etika beti da —gehiago ala gutxiago— militantea, burrukalaria. Egien etikak iritzi eta jakintza ezarriekiko duen heterogeneotasuna une zehatzetan gertatzen da: etenketa, korrupzio, giza animaliaren berehalako interesetarako itzulera, eta subjektu bilakatzen den Hilezinaren aurkako saio antzeko guztien kontra. Egien etikak saio horien ezagutza dakar, eta, beraz, etsaiak izendatzearen eragiketa singularra. "Iraultza nazional-sozialista" delako simulakroak horrelako izendapenak eragin zituen, "juduarena" bereziki. Baina benetako gertakizunaren kontra, simulakroak eragiten duen subertsioak izen horietan du jarraipena. Zeren benetako fideltasun subjektiboaren etsaia multzo itxia, substantzia, komunitatea baitira. Eta egia baten menturazko trazaketa eta bere orientazio unibertsala inertzia horien kontra jarri behar da indarrean.

Lurra, odola, arraza, ohitura edo komunitateen aldeko dei guztiak, egien kontra aritzen dira, eta multzo hori da, prezeski, egien etikak etsai izendatzen duena. Komunitatea, odola, arraza, etab. agintzen dituen simulakroaren fideltasunak unibertsal abstraktua etsai izendatzen duen bitartean

—"judua" izenaren pean, adibidez"—, egien eternitateak guztiongana zuzentzen du.

Eta horri hauxe gehitu behar zaio: izenen pean suposatzen dena diametralki ezberdina dela kasu bietan. Zeren, egia baten oso etsaia izanik ere, egien etikan "edonor" hori beti errepresentatzen baita den Hilezin hori bihurtzeko gai bailitzan. Beraz, fideltasun oro usteltzeko besteekin trukatzen dituen iritziak eta irizpenak burruka ditzakegu, baina ez *pertsona* bera, kasu honetan indiferentea delako, eta, azken finean, egia oro berari ere zuzentzen zaiolako; bere balizko substantzia inguratzeko simulakroaren fidelak lantzen duen hutsunea, berriz, haragia bera landuz lorturiko hutsune erreala izan behar da. Simulakroarekiko —egien imitazio izugarri horrekiko— fideltasunak, inongo Hilezinaren etorrera subjektiboa ez izanik, etsai moduan izendatzen duen horri, giza animaliaren existentzia soil eta zehatza baino ez dio onartzen. Eta hori berori da, hain zuzen ere, hutsunearen itzulera jasan behar duena. Horregatik, simulakroarekiko fideltasunaren ariketa, halabeharrez, *terrorearen ariketa* da. Hemen egiten dugun terrore hitzaren erabilera ez dugu Terrorearen kontzeptu politikoarekin nahastuko, osasun publikoaren Batzordeko Hilezinek Birtutearekin (bikote unibertsalgarrian) lotu zutenarekin, jende guztia bere heriotzarako-izatera murrizte soil eta sinplearekin baizik. Honela ulerturiko terroreak, praktikan, substantzia izan ahal izateko, *ezer* ezin dela izan postulatzen du.

Nazismoaren adibideari jarraitu gatzaizkio orain arte, guk egien etika kontrajartzen diogun "etikaren" ("Gaizki erradikalaren") eraketan parte hartzen duelako. Gertakizun baten simulakroa izanik, fideltasun politiko bat sortzen du. Bere ahalbidebaldintza, benetan gertakizun, beraz, unibertsalki igorrita, izan diren iraultza politikoetan datza. Baina badaude egon beste egia-prozesu posible guztiei atxikitako simulakroak. Onuragarria izan daiteke irakurlearentzat, horiek identifikatzen saiatzea. Horrela, bada, zenbait sexu-pasio, maitasun-gertakizunaren simulakroak baino ez direla ikus daiteke; eta horregatik, dudarik gabe, terrorea eta bortizkeria inplikatzen dituzte. Hor ditugu ere prediku lanbrotu zakarrak, zientzien simulakro gisa aurkezten direnak, eta hala ere beren triskantzak somagarriak dira. Eta horrela segi dezakegu. Baina kasu guztietan bortizkeria eta triskantza horiek soilik dira ulergarriak *egia-prozesuetatik abiatuta*, kasu horiek hauen simulakroa antolatzen dutelarik.

Azkenik, proposatzen dugun Gaizkiaren lehen definizioa hauxe da: Gaizkia egia-simulakro baten prozesua da. Eta, beraren funtsa, asmatzen duen izen baten aitzakiaz, guztion gaineko terrorea da.

2. *Traizioa*

Aurreko kapituluan modu zabalean eman diogu hasiera puntu honi. Esan dugu jadanik, giza animalia baten subjektu-bilakatzea adoretzen duen interes-gabeko-interesa interes soilari garaitzen zaion ala ez, propioki erabakiezina dela, giza animalia horrek interes biak bere buruaren fikzio onargarri batean batzea onartzen ez duen unetik bertatik.

Krisi-uneak dei ditzakegun momentuez ari gara. Ez dago, berez, egia-prozesu baten "krisirik". Gertakizun batez hasita, infiniturantz zuzen he-

datzen da. Prozesu horrek eraginda subjektu baten eraketan parte hartzen duten "edonor" bat edo batzuk dira krisiak jo ditzakeena. Guztiok ezagutzen ditugu maitale baten krisi-uneak, ikerlari baten adoregabezi momentuak, militante baten lasaitasun-uneak edo artista baten antzutasuntarteak; era berean, frogapen matematiko batek irakurleari agertzen dion ulertezintasun luzea, edertasun zirriborrotsua somatzen diogun poema baten iluntasun meneraezina, eta abar.

Esan dugu jadanik nondik datozen experientzia horiek: interesaren beharkizunaren pean, edo, bestela, berritasun zail baten exijentziengatik, fideltasunaren jarraipen subjektiboan nire buruaren irudi gisa mantentzen dudan fikzioa, interes soila eta interes-gabeko-interesaren arteko nahasketa, giza animalia eta subjektuaren arteko anabasa, hilkorra eta hilezinaren arteko nahasteborrastea hautsi egiten dira. Eta une horrexetatik, aukera garbi bat agertzen da egia horren etikaren "Jarraitu!", eta naizen hilkor arrunta "izatean irautearen" artean.

Fideltasun-krisia beti da, irudi baten porrotak eraginda, kontsistentziaren ikur bakarra den "Jarraitu!" zalantzan jartzen duena. Zantzua galdu denean, prozesuak "zeharkatzen" ez gaituela sentitzen dugunean, gertakizuna bera ilunduta dagoenean, bere izena galdu denean ere, edo izen horrek akats bat edo simulakro bat izendatzen ote duelako susmoa dagoenean ere, jarraitu.

Egia esan, simulakroen existentzia ezagunak asko laguntzen du krisien eraketan. Iritziak murmurikatzen dit (eta beraz, nire buruak murmurikatzen dit, ni ez bainago inoiz iritzietatik kanpo) nire fideltasuna nire buruari eragindako terrorea

izan daitekeela, eta fidela natzaion fideltasunak, identifikaturik dagoen Gaizki honen edo haren antz handia duela, handiegia. Hau beti da posible, simulakro gisako Gaizki horren ezaugarri formalak egia batenak baitira, zehatz-mehatz.

Dudan arriskua, beraz, egia bat *traizionatzea* da. Traizioa ez da uko egite hutsa. Zoritxarrez ezinezkoa da egia bati "ukapen" hutsa egitea. Hilezinari nire buruan uko egitea ez da abandonu edo uzketa hutsa: nire buruari sinestarazi egin behar diot Hilezina delakoa *ez dela inoiz existitu*, eta puntu horretan iritzietara hurbildu; interesen zerbitzura egonik, beren izate guztia prezeski ukapen horretan oinarritzen duten iritzietara. Hilezinak, bere existentzia onartzen badut, segitzera bultzatzen nau, horretarako, induzitzen duten egien indar eternala baitauka. Eta ondorioz, beharrezkoa da nik subjektu-bilakaketa neure buruan traizionatzea, naizen "edonor" delakoa, batzuetan beste batzuekin batera, subjektua osatzen nuen egia horren etsai bihurtzea.

Horrela, antzinako iraultzaileak errorean eta zorotasunean zeudela aldarrikatzera behartuta egotea, antzinako maitale batek zergatik emakume hura maite izan zuen ez ulertzea, edo zergatik zientzilari nekatuak bere zientziaren etorkizuna bera mesprezatzera eta burokratikoki laidatzeraino iristea konpreni ditzakegu. Egia-prozesua hausketa inmanentea denez gero, ezin duzu "utzi" (Lacanen esaldi gogorraren arabera, "ondasunen zerbitzura" itzultzea esan nahi duena) atzitu zintuen hausketarekin hautsiz ez bada. Eta hausketa baten hausketak zio modura soilik du jarraipena. Egoeraren eta iritzien jarraipena: "politika" edo "maitasuna" izenen

pean, soilik egon zen ilusioa kasurik onenean, eta simulakroa, txarrenean.

Hortik dator egia baten etikaren porrota, krisi baten puntu erabakiezinean, traizio bezala agertzea.

Eta, bere posibilitatea egia batek agerian uzten duelarik, Gaizkiaren bigarren izena, simulakroarena eta gero, bertatik itzultzea ezinezkoa den Gaizkia da.

3. Izendaezina

Hauxe esan dugu: egia batek —hori baita beraren "itzulera" efektua— komunikazio-kodeak eraldatzen ditu, iritzien araubidea aldatzen du. Ez iritziak "egiazko" (edo faltsu) bihurtzen direlako. Ez dira horretarako gauza, eta, bere izaki-anitz eternalean, egia bat axolagabea da iritziekiko. Baina horiek *zerbait diferente* bihurtzen dira. Honek esan nahi du ordurarte iritziarentzat nabariak ziren irizpenek ez dutela jadanik balio, beste batzuk behar direla, komunikatzeko moduak aldatu egiten direla, eta abar.

Iritziak eraldatzeko efektu honi, egien *potentzia* deitu diogu.

Orduan, planteiatzen dugun arazoa hauxe da: bere trazaketa fidelari jarraitzen zaion egoeran, egia baten potentzia birtualki erabatekoa da?

Zertan datza benetan egia baten ala bestearen potentzia erabatekoaren hipotesia? Hau ulertzeko beharrezkoa da gure axioma ontologikoez gogoratzea: egoera (objektibo) bat, bereziki egia (subjektibo) batek "eragiten" duena, anitz bat baino ez da, elementu infinituek osotzen dutena (hauek, beren aldetik, ere anitzak direlarik). Zein da orduan iritzi baten forma orokorra? Egoera objektiboaren elementu bat edo besteari buruzko irizpena: "Eguraldi erauntsitsua dugu gaurkoa", "Nik politikari guztiak ustelduta daudela diotsut" eta abar. Beharrezkoa da egoerako elementuak —egoera horren barnean dauden elementu guztiak izanik— nola edo hala izendatuta egotea. "Izendatu" hitzak soilik esan nahi du giza animaliak elementu horiei buruzko zerbait komunikatzeko, horien existentzia sozialtzeko, beren interesen menpe jartzeko baldintzatan daudela.

Dei diezaiogun "egoerako lengoaia" egoera osotzen duten elementuak izendatzeko posibilitate pragmatikoari, eta, beraz, horiei buruz iritziak elkarrekin trukatzeko posibilitateari ere bai.

Edozein egiak badu zerikusirik egoerako elementuekin, zeren bere prozesuaren funtsa horiek *gertakizunaren ikuspuntutik* aztertzea besterik ez da eta. Zentzu honetan, egia-prozesuak elementu horiek identifikatzen ditu, eta, egiaren subjektu baten osaketan parte hartzen duen edonork, ia segurua da identifikatze lan horretan lagunduko duela, "edonor" den aldetik mundu guztiak darabilen egoerako lengoaia erabiliz. Ikuspuntu horretatik hartuta, egia-prozesuak egoerako lengoaia zeharkatu egiten du, jakintza guztiak zeharkatzen dituen bezalaxe.

Baina elementu bat *egia baten arabera* aztertzea, eta iritzi-mailatik emandako irizpen pragmatikoa gauza erabat desberdinak dira. Arazoa ez da giza animalien interesak —hauek dibergenteak dira, iritziak beraien artean inkoherenteak diren bezala— elementu horretaz jabetzea. Arazo soila, gertakizunaren hausketa inmanentearen ondoren, elementu horretaz "egiatan" agertzea da. Eta agertze hori, berez,

interesik gabea da, beraren xedea elementua nolabaiteko eternitateaz hornitzea delarik, egiaren subjektuan —agerpenaren puntu erreala den subjektua— parte hartzen duten "edonor" delakoen Hilezin-bihurtzearekin guztiz bat datorren eternitatea.

Hemendik ondorio nagusi bat ateratzen da: funtsean, egia batek *izenak aldatzen ditu*. Uler dezagun hemen, egiten duen elementuen izendapen propioa eta izendapen pragmatikoa desberdinak direla, bai abiapuntuan (gertakizuna, fideltasuna) bai xedean (egia eternal bat). Eta hau, egia-prozesuak egoerako lengoaia zeharkatu arren, berdinberdin gertatzen da.

Horrela, bada, onartu beharra dago, iritzien komunikazioa baimentzen duen egoerako lengoaia objektiboaz gain, egia baten inskripzioa baimentzen duen *subjektu-lengoaia* bat (egoera subjektiboaren lengoaia) ere badagoela.

Egia esan, puntu hau nabaria da. Zientziaren lengoaia matematizatua ez da inondik inora iritzien lengoaia, ez eta zientziari buruzko iritziena ere. Maitasun-aitorpen baten lengoaiak, itxuraz hutsala badirudi ere ("Maite zaitut", adibidez), egoeran duen *potentzia* hitz berorien erabilera arruntetik guztiz kanpo egoteari esker da. Poemaren lengoaia ez da kazetaritzarena. Eta politikaren lengoaia hain da bakana ezen iritziak "panfletotzat" duela.

Baina interesatzen zaiguna hauxe da: iritziei dagokienean, izendapen pragmatikoak (egoera objektiboaren lengoaia) subjektu-lengoaiarekiko kontaktuan moldatu eta deformatzera bortxatzean datza egia baten potentzia. Hau da, eta ez besterik, ezarritako komunikazioaren

kodeak, egia baten efektuaren pean, aldarazten dituena.

Une honetan egiaren potentzia *erabatekoa* zer izan daitekeen defini dezakegu: subjektu-lengoaiaren potentzia erabatekoa litzateke. Hots, egia-prozesutik abiatuta, egoera objektiboko elementu guztiak izendatu eta neurtzeko ahalmena. Zurrundu eta dogmatiko (edo "itsu") bilakatu ondoren, subjektu-lengoaiak, bere axioma propioetan oinarrituta, errealaren osotasuna izendatu nahiko luke, eta horrela mundua eraldatu.

Egoerako lengoaiaren botereek, berez, ez dute murrizketarik: edozein elementu izenda dezakete edozein interesetatik abiatuz gero, eta giza animalien arteko komunikazioetan ere epaitua izan daiteke. Baina, nolanahi ere, aipaturiko lengoaia *inkoherentea* denez eta trukatze pragmatikoaren menpe dagoenez, bere osotasunerako bokazioak ez du axolarik.

Haatik, egia-prozesu baten emaitza den subjektu-lengoaiaz (militantearen, ikertzailearen, artistaren edo maitalearen lengoaiaz) aritzen garenean, potentzia erabatekoaren hipotesiak guztiz bestelako ondorioak ditu.

Hasteko, egoera objektibo osoa egia subjektiboaren *koherentzia* bereziak atondu dezakeela suposa daiteke.

Segitzeko, *iritzia ezerezta* daitekeela suposa daiteke. Izan ere, subjektu-lengoaiak egoerako lengoaiak duen hedadura berbera baldin badauka, gauza guztietaz egia esan baldin badaiteke, orduan egiaren potentziak ez du erabilera pragmatiko eta komunikagarrien aldaketa soila agertuko, egiazko izendapenaren autoritate erabatekoa baizik. Kasu honetan, egiak egoerako lengoaia, subjektu-

lengoaiarekin ordezkatuko du, soilki eta sinpleki. Honela ere esan daiteke: Hilezina, euskarri duen giza animaliaren ukapen osoarekin gauzatuko da.

Nietzschek, nihilismo kristaua lehertaraziz eta Bizitzaren aurreko "baiezko" dionisiarra hedatuz "munduaren historia bitan zatitzen" saiatu zenean, edo, 1967an, Txinako Iraultza kulturalaren Goardia gorri batzuek, egoismoaren erabateko ezabaketa aldarrikatu zutenean, interesa desagertu eta Nietzschek eta Goardia gorriek aipatzen duten egiak iritziak ordezkatu dituen egoera baten aurrean gaude. Era berean, XIX. mendeko positibismo handiak ere, zientziaren enuntziatuek iritzi eta sinismen guztiak *ordezkatuko* zituztela pentsatu zuen. Erromantiko alemanek ere, poetika absolutizatuak alde batetik bestera zeharkaturiko unibertsoa maite izan zuten.

Baina Nietzsche erotu egin zen. Goardia gorriak, triskantza itzelak egin ondoren, fusilatuak izan ziren, kartzelaratuak, edo beren fideltasun propioa saldu egin zuten. Gure mendea progresuaren ideia positibisten hilerria da. Eta erromantikoek, euren buruaz beste gogoz egiten zutenak, politika "estetizatuen" joan-etorrian, beren "absolutu literarioa" munstroak erditzen ikusi dute[18].

Praktikan egia guztiek dakarte, beraiek eragindako subjektuen osaketan, "edonor" delakoaren iraupena, egiaren mesedetan dabilen giza animaliaren betiko egintza bikoitza. "Kontsistentzia" etikoa bera ere, ikusi dugu jadanik, jatorria interesean duen iraunkortasun batekiko fideltasunaz, interesik gabeko engaiamendua dugu. Gauzak horrela, egien potentzia erabatekoaren ikuspegi orok, egia horien euskarria suntsitu egiten du.

Hilezina soilik existitzen da gizaki hilkorragatik eta gizaki hilkorrean. Egiek soilik egiten dute beren bide bakuna iritzien ehunean. Beharrezkoa da guk guztiok komunikatzea, iritziak ematea. Subjektu-bihurtzera gu geu, garen moduan, agertzen gara. Gurea da dugun Historia bakarra, ez dago etortzeko dagoen egiazko mundurik. Mundua, mundua den aldetik, egia eta faltsuaren mundua da, eta izango da. Ez dago Ongiaren koherentziak atzituriko mundurik. Mundua Ongitik eta Gaizkitik honantzago dago, eta egongo da.

Ongia soilik izango da Ongia, mundua on bihurtu nahi ez duen neurrian. Bere izate bakarra, egia bakun baten egoeran gertaturikoa da. Beharrezkoa da, beraz, egia baten potentzia inpotentzia izatea ere bai.

Egia baten potentziaren absolutizazio orok Gaizki bat prestatzen du. Gaizki hori ez da soilik egoeraren suntsiketa (zeren iritzia suntsitzeko agintzaria, funtsean, giza animaliaren animaltasuna suntsitzeko —bere izakia, beraz— agintzari berdina baita), azken batean, egia-prozesuaren (zeinaren izenean bera aritzen den) etena egitea baizik, subjektuaren osaketan ez duelako interesen bikoizketa babestu (interes-gabeko-interesa eta interes soila).

Guzti horregatik, Gaizkiaren irudi honi *desastrea* deituko diogu, egiaren potentziaren absolutizazioak eragindako egiaren desastrea.

Azken batean, egiak erabateko potentzia ez izateak, subjektu-lengoaiak, egia-prozesuaren emaitza izanik, egoerako elementu guztiak izendatzeko ahalmenik ez duela esan nahi du. Gutxienez, elementu erreal bat existitu behar da,

egoeran existitzen den anitz bat, egiaren izendapenentzat eskuraezina dena, eta iritziaren eremuan, egoerako lengoaian baino ez dagoena. Egiak bortxatu ezin duen puntu bat.

Elementu honi egia baten *izendaezina* deituko diogu[19].

Izendaezina ez da horrela "berez": egoerako lengoaiarentzako birtualki eskuragarria da, iritziak truka daitezke beraren gainean; komunikazioak ez baitu mugarik. Izendaezina, subjektu-lengoaiarentzat da izendaezina. Esan dezagun termino hori ezi dela eternizatu, alegia, ez da Hil-ezinarentzako eskuragarria. Zentzu honetan beraz, egoerako *erreal hutsaren* sinboloa da, egiarik gabeko bizitzarena.

Pentsamendu filosofikoarentzat lan zaila da egia prozesu baten puntu izendaezina mugatzea. Baina ez gara hemen horretaz arituko. Esan dezagun hala ere, maitasunari buruz, atsegin sexuala berez, egiaren potentziatik (biari buruzko egia izanik) kanpo dagoela. Matematiketan, kontresanik gabeko pentsamenduaren adibide ezin hobean, kontraesana da, hain justu, izendaezina dena: gauza jakina da, sistema matematiko baten barruan ezinezkoa dela sistema horren kontraesanik-eza frogatzea (Gödel-en teorema ospetsua)[20]. Azkenik, kolektiboa, komunitatea, dira politikaren izendaezinak: komunitate bat "politikoki" izendatzeko saio orok Gaizki desastroso bat eragiten du (hau oso ongi ikus daiteke nazismoaren adibide muturrekoan, eta baita ere "Frantses" hitzaren erabilera erreakzionarioan, bere xede bakarra, "atzerritarrak" direlako inputazio arbitraroaren pean, hemengo jendea jazartzea delarik).

Kontutan izan behar duguna, printzipio orokorra da: kasu honetan, Gaizkia egia baten baldintzaren pean, kosta ahala kosta izendaezinaren izendapena bortxatu nahian datza. Hori da, hain zuzen ere, desastrearen hasiera.

Simulakroa (gertakizunari jarraian doakiona), *traizioa* (fideltasunari jarraian doakiona), *izendaezinaren bortxaketa* (egiaren potentziari jarraian doakiona): hauek dira Gaizkiaren irudiak. Beraren posibilitatea, soilik Ongi ezagugarri batek —egia-prozesu batek— gaurkotu dezake.

Ideologia "etikoa" eta beraren aldagai sozialduen kritika erradikaletik abiatu gara: giza eskubideen doktrina, Gizakiaren ikuspen biktimista, eskusartze humanitarioa, bio-etika, "demokratismo" itxura gabekoa, diferentzien etika, erlatibismo kulturala, exotismo morala, eta abar.

Baita ere, gure garaiko joera intelektualak, kasurik onenean, antzinako predikazio moralzale eta erlijiosoaren aldagaiak, eta, txarrenean, atzerakoikeria eta heriotz bultzadaren nahaste mehatxugarria direla erakutsi dugu.

Halaber, txitean-pitean "etika" aipatzen duen *iritzi*-korronteari, gizateria bere bizidun suntsitzailea izatetik bereiztu dezakeen zerbait horren, hots, egia eternal batzuen osaketan eta etorkizunean sartzeko ahalmenaren ukapen-sintoma larria ikusi diogu.

Ikuspuntu honetatik, ez dugu inolako zalantzarik hau esaterakoan: gure gizarteetan, pentsamenduari —edozein dela ere— justizia egiten saiatzen diren guztien etsai nagusia (baina behin-behinekoa) ideologia "etikoa" da.

Ondoren, bere ikurra egien etorkizunaren menpe jartzen duen etikaren kontzeptu onargarri baten berreraiketaren zirriborroari ekin diogu. Ikur hori, era orokorrean, honela esaten da: "Jarraitu!". "Edonor" delakoa izateari jarraitu, besteak bezalako giza animalia, baina halere, egia baten gertakizun-prozesu batek *atzitu eta lekuz aldatuta* aurkitzen dena. Bilakatzea tokatu zaigun egia baten subjektuaren parte hartze eragilea izateari jarraitu.

Ikur horren paradoxen bihotzean aurkitu dugu, nahiz eta Ongiaren (egien) menpe, Gaizkiaren egiazko irudia, hiru motatan: *simulakroa* (gertakizun faltsu baten jarraitzaile izugarria), *traizioa* (bere interesagatik egia baten aurrean etsitzea), izendaezinaren bortxaketa, edo *desastrea* (egia baten potentzia erabatekoa dela pentsatzea).

Gauzak horrela, Gaizkia, Ongiaren aurkikuntzak baino zabaltzen ez duen posibilitate bat da. Egien etika, garen "edonor" delakoei kontsistentzia emateko baino balio ez duena, animaliaren iraunkortasun hutsarekin egia-subjektu baten denboragabeko iraunkortasuna eusteko paradankitzen da, eta hori da baita ere Gaizkiari aurre egiten saiatzen dena, egia baten prozesuan barneratze efektibo eta tematiaren bitartez.

"Jarraitu!" aginduaren pean beraz, etikak bereizketarako baliabideak (simulakroekin ez erratu), adorea (amore ez eman) eta zuhurtasuna (Totaltasunaren muturrera heldu gabe) konbinatzen ditu.

Egien etikaren asmoa ez da mundua Zuzenbide baten erresuma abstraktuaren menpe ipintzea, ez eta Gaizki kanpotar eta erradikal baten kontra burrukatzea. Haatik, egiekiko duen fideltasun propioagatik, Gaizkiari aurre egiten saiatzen da, egia horien iruntzia, alde iluna dela ezagutu duelarik.

15 Nietzsche, *La Généalogie de la morale*. Nietzscheren libururik sistematikoena da hau, beraren baloreen "bizi"-kritika laburbiltzen duena.

16 Alain Badiou, *L'être et l'événement*, op. cit. Liburu honetan zentrala da alde batetik, gertakizunaren izenaren teoria, eta bestetik, hizkuntza-subjektuarena. Bigarrena, bereziki, nahiko delikatua da.

17 Victor Farias, *Heidegger et le nazisme*, 1985. Nahiko anekdotikoa den liburu honetan, Heidegger, garai oso batez, simulakro batek atzituta egon zela ikusten da. Gertakizuna bere pentsamendutik zetorrela uste zuen.

18 Philippe Lacoue-Labarthe eta Jean-Luc Nancy, *L'absolu littéraire*, Seuil, 1988. Urteak dira, bi autore hauek, erromantizismo alemana eta faszismoan izandako politikaren estetizazioaren arteko erlazioaz lanean ari direla. Ikusi baita ere, lehenaren *La Fiction du politique*, C. Bourgois, 1978.

19 Alain Badiou, *Conditions*, Seuil, 1992. Bilduma honetan, *izendaezinari* buruzko bi testu daude: "Conférence sur la soustraction", eta "La verité: forçage et innommable".

20 *Le théorème de Gödel*, Seuil, 1990. Garrantzitsua da teorema ospetsu honek dioena zehazki konprenitzea.

BIBLIOGRAFIA

- Aristotele, *Éthique a Nicomaque*, Garnier-Flammarion, 1950.
- A. Badiou, *Conditions*, Seuil, 1992.
- V. Chalamov, *Kolyma*, Maspero, 1980.
- A. Glucksmann, *Les Maîtres Penseurs*, Grasset, 1977.
- J. Habermas, *Théorie de l'agir communicationnel*, Fayard, 1987.
- Kant, *Fondements de la métaphysique des moeurs*, Delagrave, 1957.
- J. Lacan, *L'Éthique de la psychanalyse*, Seuil, 1986.
- E. Lévinas, *Totalité et infini*, La Haye, 1961.
- Nietzsche, *La Généalogie de la morale*, Mercure de France, 1964.
- Platon, *La République*, Les Belles Lettres.
- Spinoza, *Éthique*, Seuil, 1988.

Trajetoire inverse. I. Almagestes. Paris, Seuil, 1964.
Trajectoire inverse. II. Portulans. Paris, Seuil, 1967.
Le Concept de modèle. Paris, Maspero, 1969.
Théorie de la contradiction. Paris, Maspero, 1975.
De l'idéologie. F. Balmèsekin batera. Paris, Maspero, 1976.
Le Noyau rationnel de la dialectique hégélienne. L. Mossot eta J. Bel-lassenekin batera. Paris, Maspero, 1978.
La "Contestation" dans le PCF. Marseille, Potemkine, 1978.
L'Echarpe rouge. Romanopera. Paris, Maspero, 1979.
Jean-Paul Sartre. Marseille, Potemkine, 1980.
Théorie du sujet. Paris, Seuil, 1985.
Peut-on penser la politique? Paris, Seuil, 1988.
L'être et l'événement. Paris, Seuil, 1988.
Manifeste pour la philosophie. Paris, Seuil, 1989.
Le Nombre et les nombres. Paris, Seuil, 1990.
Rhapsodie pour le théâtre. Paris, Imprimerie Nationale, 1990.
D'un désastre obscur. Paris, Éditions de l'aube, 1991.
Conditions. Paris, Seuil, 1992.

ETIKA

Alain Badiou

ETIKA

Gaizkiaren kontzientziari buruzko saioa